

uk

118. zenbakia / 2007 apirilak 30



GETXO MAIATZA-2007 KANTUKETAN

SANTA EUGENIA PLAZA, 17:00

3-EGIN KANTU ETB

GETXO ANTZOKIA, 19:30

OSKORRI PUB IBILTARIA

PIPER S IRISH PUB, 20:00

4-TXUMA MURUGARREN

GETXO ANTZOKIA, 19:00

5-HAUR KANTARI TXAPELKETA

PORTU ZAHARRA, 20:00

BERRI TXARRAK + LISABO

UK galeria > Asier Bastida



Algortan jaio izan arren Leioan eman du bizitza Asier Bastidak (1972). Ekonomista izateko ikastetarako egin zituen eta oraindik ere gogoan dauka bere lehenengo argazki kamera erosi zueneko. Aitak esan zion: "Zertarako nahi duzu zuk kamera bat?". Leioan lanean urte asko eman eta gero, Mundo Deportivon egon eta gero, orain Gasteizko Deia egunkarirako bere exilioan, zertarako erosi zuen ikusten ari da. Ez du bere burua fotografiako artistatzat jotzen, irudiaren behargin umila baino ez deritza, uneen ehiztaria; erreportari klasikoa.

Dagla, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa, 2007ko otsaila. Omar eta bere auzokideak olgetan iluntzean.

«Gerrak txar guztiak ekarri, on guztiak eraman» Euskal esaera zaharra

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Liburu Azoka. Asier Mentxaka.
7. LEHEN ETA ORAIN. Aiboa tren geltokia.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Inaxio Etxebarria *Guzur*.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Getxoko arbolak, Asier Mentxaka.
28. ARGAZKIA. Idiak Sopelako hondartzan, Fede Merino.
30. BERBETAN. Mikel Urdangarin, Unai Brea.
34. FOTOGRAFIA. Gerra irudiak, Areta 1937.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Oskar Fernandez. Erandioko IV. Film Laburren Leihaketa.
43. MUSIKA. Gun's Cloners taldea. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Abagaren azkena. Liburuen erreseinak.
45. KIROLAK. Udaldira begirako Getxoko kirol eskaintza.

EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Ibon Rodriguez, Oinane Moran.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Leioako Artaza jatetxera.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Txoriari futbol taldea 1971ean, Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Janfri Topera, Maitane Nerekan.



30 Mikel Urdangarin



11 Inazio Etxebarria

Berbetan

35 urte, bakarkako dozena erdi inguru disko, eta auskalo zenbat zuzeneko emanaldi eta gero ilusio horrek oso-osorik dirauela esan digu.



21 Maia Letamendia



34 Areta 1937



49 Leioako Artaza jatetxea



54 Janfri Topera

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Maitane Nerekan

FOTOGRAFIA: Asier Mentbaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bitor Egurrola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Arnozaga, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Akaizte Kamirua, Amaia Arriaga, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



gugeu

Liburuak eta gerra


Batetik liburuaren nazioarteko eguna ospatu berri delako, eta bestetik, aurre Gernikako sarraskiaren 70 urte bete direlako, liburuak eta gerra hizpide izan ditugu (guk behintzat) apirilaren bukaera sargaritsu honetan.

Oso gutxi irakurtzen dugu euskaldunok (euskaraz are gutxiago) eta 36ko gerraz gauza handirik ez dakigu (belaunaldi gazteek are gutxiago). Gaitz larri bi hauentzako sendagai aparta iruditzen zaigu Atxagaren azken liburua: *Markak, Gernika 1937* (Pamiela). Gai latz eta mingarria jorratu arren, liburua zabaldu eta amaitu arte itxi ezin diren horietakoa da. Horrelako gauzak esaten ditu Atxagak liburuan: *“Imajina dezagun egoera: pentsa dezagun bonbardatuak, metrailatuak, erreak izan ziren biktimengan, edo kartzelatuak, beren ondasunetaz desjabetuak, beren hizkuntzan mintzatzeagatik mehatxatuak izan zirengan -Habla en cristiano!-; pentsatu hogeitamar urte luzez ez zutela gertatutakoa kontatzeko aukerarik izan...”*.

Biziki gomendatzen dizuegu.

UK-ko lantaldea

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

hemeroteka >

Urbanismo kulturala

Beti harritu izan nau orain mende bi Getxo eta Barakaldo herrietako ordezkariak Bizkaiko Batzar Nagusietatik erderarik ez zekitelako kanporatu zituztela jakiteak. Barakaldon (edo Ibarakaldun, bertako euskaldunek esaten zuten moduan) ehunka biztanleko herri txikiak milaka etorkin gehitu zitzaizkion. Garaiko enpresariaren interesez haraindiko inolako zentzu edo antolakuntza urbanistikoa barik. Ondorioz, hango euskalkia eta kultura biztanleri kontzentratuaren uholdean disolbatu ziren xaboi pastila itsasoan legez. Jokaldi bera gertatzen da gure herriko Andra Mari auzoan. Goierrin batez ere, elizatik behera egin beharrekoak eginda daude eta. LZPri ezetz esateko mila arrazoen artean gure ondare kultural inmaterialari dagokiona dakarkizuet hona.

Azken hilabeteak gure herriko euskalkia batzeko grabazioak egiten pasa ditut. Horrekin batera Getxoko toponimia, historia, mitologia, bizimodu eta pentsaera helarazi dizkizate Getxo euskaldun eta elebatar ez hain urrunekoaren azken lekuko biziek. Bilketa hau egiteko klabea Andra Mari auzoaren existentzia bera da. Bertako baserrietan gordetzen delako oraindino ere gure berbe, iraganaren oroimena, eboluzioa azaltzeko perspektiba eta batez ere, Getxo berreuskaldundu eta, gauza bera dena, gure izaerari eusteko jarraitu beharreko bidea. Berreuskalduntzea lehengoari arnasa emanda berria sortzen joatea da. Akats larria baita zerotik hasi gura izatea gure errealitatea eta Arabar Errioxarena berberak balira legez.

8.300 etxebizitza horien uholdeak gure kultur ondare inmateriala betiko galduko luke, baina ez daukagunez kostu hori azaltzen duen fakturarik, eraikin enpresa, udaletxe eta uraren ginetik busti barik ibiltzen espezializatu diren bertoko euskal komunikabideei, bost.

Fredi Payak *Kliska* aldizkaritxoaren 4. zenbakian argitaratutako artikulua



ALGORTA, 2007KO APRILAREN 20A

Liburuetako munstro txikiak / Lewis Carrollen obra batean inspiratutako irudi magikoa dirudien arren, Algortako Geltoki plazan apirilean burututako liburu azokan ateratako argazkia da goikoa. Etxeko txikiak ispilu eta jostailu artean disfrutatzen aukera izan zuten bertan, nagusiek azken argitalpeni begirada bat ematen zieten bitartean. Auskalo zer pentsatu zuten euren burua horrela ikusi zuten munstro txikiak. Fantasiaren mundua askea da. ○ / Argazkia: **Asier Mentbaka**

eta orain...

UKren fruten posterra

Zelan eskuratu?

Zatoz UKren bulegora*, eskatu eta eroan!

* bulego ordutegia: 09:00-15:00

Ezaugarriak


Neurriak: 40 x 70 cm

Zer dakar posterrak?

Fruten izenak
(euskaraz, gazteleraz,
frantsesez eta izen
latinez) eta eurak
jateko sasoiak.

Argitaratzailea:
UK aldizkaria

Babesleak:
Getxoko Udaleko
Euskara Zerbitzua
BBK



Armezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 Algorta GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37



Iraganez doa denbora* beti / AIBOA TREN GELTOKIA (1986-2007)

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > atzerako kontaketa



Goian, Sarako kanpandorra; behean, Getxoko Andra Mari elizako erlojua

Testua: **Xa2 Paya**

1

Hamabietan jaiki da gosariaren eskean, ordu batean pintxo bat, ordu bietan postrean, hirurak pasatu dira lauak azkar iristean, bostetan lan egitera joan da, ezinbestean, zazpitan etxeratu da, seiak igaro ostean, zortzietan afaldu du gosea berriz piztean, nahiz eta bederatzitan ez egon ilun tristean, hamarretan lokartu da hamaikak ziren ustean.

2

Hamabietan jaiki da hamarretan dutxa, hotza, bederatzitan hartu du hamaiketako aproposa, zortzietan "Friends" du lege zazpitan "Salsa Rosa" bostetan gogoratu du seietako bizipoza. Lauretan oroitu ditu lehen musua, ezkontza, hiruretan lehen txorta eta Beñaten jaiotza, ordu bietan taupadek hustu diote bihotza, azkenik, ordu batean, ez du entzun kanpai-hotsa.

3

Orduak pasatzen dira gizakiari kolpeka eta azkena goizegi ailegatzen da tarteka, hortaz, ez bitan pentsatu, bizitza bizi uneka, treña noiz iritsiko zain gertu eduki maleta, esateko dena, esan, ez utzi ezer gordeta, bat bakarra da partida, bat bakarra lasterketa. Denboran aurrera doa, ezin da gelditu eta, bizitza deitzen den gure atzerako kontaketa.

* Doinua: Baserrian jaio nintzen

* Oharra: Lehen bertsoa edozein puntutatik has daiteke

posterra > fruten hormairudi berria kaleratodu UK-k



Fruten posterrak eskuz egindako irudi eder eta koloretsuak dauzka

Barazkien posterrak irakurleen artean eduki duen harrera ona ikusita, frutakaz gauza bera egitea erabaki du UK aldizkariak eta gura duenak eskuragarri edukiko du hormairudi berria, aurrekoan legez, aldizkariaren bulegoan. Oraingoan, inguruotan gehien kontsumitzen diren frutak izango dira protagonista: mailukia, hurretxa, ikua, kereiza, okarana, intxaurra... Posterraren formatoa, aldiz, barazkien antzekoa izango da (eskuz egindako irudi eder eta koloretsuak) eta honek ere produktua kontsumitzeko aro egokiaren inguruko informazioa eskainiko du, hala nola, izen zientifikoa eta frantsesera zein gaztelaniara dagokion itzulpena. Euskara gure eskaratzetan zein saltokietan sartzea da Getxoko Euskara Zerbitzuaren laguntzaz UK-k aurrera eroandako egitasmoaren helburu nagusia. Beraz, ez birritan pentsatu eta eskura ezazu doan zeurea! ○

erakusketa > The mother route. Route 66 erakusketa Kultur Leioan



Erakusketan ikus daitekeen argazkietako bat

Adrian Ruiz-Hierro eta Josu Izarra gasteiztarrek AEBetako Route 66 errepide entzutetsuan zehar egindako bidaian ateratako argazkiek osatzen dute Kultur Leioan, maiatzaren 7tik ekainaren 3ra arte, ikusgai egongo den erakusketa. Bide bereko hainbat lekuren irudi ilunek, basamortuko ikuspegiak, erakusleho beltzek, errepideko motelek, Amerika sakoneko aurpegiak eta autotik ateratako bat-bateko argazkiek osatzen dute argazkilarien bilduma. Chicagotik Los Angelesera dauden 4.000 kilometroetako egunerokotasunaren benetako istorioa dakarkigute argazkilariek 40 argazkitan. Gaur egun estatuak batzen dituen 40. autobide erraldoiaren paraleloa den errepide ahaztua da "route 66". 60ko hamarkadan berebiziko garrantzia izan zuen eta oraindik ez du bere kutsu erromantikoa galdu. ○

saiaszgetaria
HOTEL

Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa

..haria

...lehen garaiak...

...itsasa

www.saiaszgetaria.com / info@saiaszgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

etxebizitza > “Getxoko gazteok, LZPri ez”

Egoera salatzeko ekimen berriak martxan ipiniko dituztela iragarri dute gazteek

Joan den apirilaren 11n, Lurralde Zati Planaren proiektua gaitzesten duen manifestua aurkeztu zuten Andra Mari elizaren aurrean hainbat gaztek. Besteak beste, Getxon plana aurrera eramateko gazteek duten etxebizitzaren beharraz ordezkari politikoez egiten ari diren erabilpen mediatikoa salatu zuten. Andra Marin bildutakoek LZPk etxebizitza arazoa konponduko duenik gezurtatu zuten eta Etxebidek egindako zozketak zein ipinitako baldintzak arbuiaitu. Era berean, egoera salatzeko ekimen berriak martxan ipiniko dituztela iragarri zuten. Honakoak dira egitasmoagaz bat egin duten talde batzuk: Amarratsak, Segi, Gazte Asanblada, SUGA, Etorkezuna Eskaut Taldea, Getxo Rugby, Herri Norte, Itzubaltzetako gaztetxea, Koska Irratia, Mundurat Sarea, Txorimalo gaztetxea, Karrika konpartsa eta Komandos Azkorri kolektiboa. ○

Sahara > umeak udan hartzeko epea ireki du Getxoko Aftal elkarteak

Informazio gehiago eskuratu edo izena emateko: 658 751 359

Saharako ume bat udan hartu gura duenak maiatzaren 10era arte edukiko du Getxoko Aftal elkartearen izena emateko. Urtero legez, basamortuko akanpalekuetako umeak gurera ekartzeko ahaleginak egingo ditu elkarteak. Orain arte 10-12 ume ekarri izan ditu, baina aurten 15 ekartzea da asmoa. Bertako umeen bizi kalitatea hobetzen dute bertoko sendiakaz igarotzen dituzten oporrek; izan ere, basamortuko tenperatura latzek eta elikagai faltak ondorio larriak eragin ditzakete eurengan. Gure artean, makina bat ekintza burutzeko aukera izango dute: txangoak, jolasak... Bide batez, saharauiek pairatzen duten egoera politikoa salatzeko balio du ekimenak (ez dugu-eta ahaztu behar euren herrialdetik bota zituztela). ○



“Ez dago ni baino Algortakoagoa den inor”, dio Guzurrek

Inaxio Etxebarria > Guzurti

Ez du aurkezpenik behar. Seguruenik askok ez zenuten jakingo bere izena Inaxio Etxebarria denik, izan ere, *Guzur* ezizenaz ezagutzen dugu denok, auskalo zergatik! Jaietan, hondartzan, errugbi zelaian... non edo non denok izan dugu lagun mitiko honekin topatzeko aukera. Urte dezente daramatza herria alaitzen eta asko dauka esateko: “Ez zait batere gustatzen Udala herriarekin egiten ari dena; jaiekin, Andra Mari ko lurrekin eta gazteekin”. Urtero umeen atzetik eta kuadrilen jaitsieraren aurretik ikusten dugu suzko zezena eta txupinazoeekin: “1975ean hasi nintzen, Portu Zaharreko kantenak animatuta. Garrantzitsuena zarata egitea da, jendeak hor gaudela jakin dezan”. Nola ez, Guayto on bezala, Portu Zaharreko jaiak ditu gustuko: “Marmitakoa urteko egunik politena da. Egun hori jai hartzen dut, neuk ere giroaz disfrutatu ahal izateko. Gainera, nik eta nire lagun batzuek asmatu genuen pijama eguna”. Surf egiten ondo sentitzen da, “baina olatu handietan soilik”. Beroa heldu bezain pronto, bainularien segurtasuna bermatzeaz arduratzen da: “75ean hasi nintzen honetan ere”. Urte berean hasi zen Getxo Rugby taldean: “Duda barik, hori izan zen nire urtea!”. Parrandetan zein kirol emankizunetan, beti dago lan egiteko prest. Ezinezkoa da Algorta Guzur barik! ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan **Reprografía**
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Goll - Getxo
Tlf. 944 649 067
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Imprimatze eta plano kopiak •
Karteak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
ermarkaketak •



Zaborraren auzia

Ezker Batuak zaborren tratamendua **Tokiko Ingurumen Foroan eztabaidatzea** onartu du, baita foro horrek eta Udaleko Idazkariak txostenak egiteko proposamena ere

Azken hilabeteotan Aldundiak Getxoko hondakinak erraustegira bideratu ditu. Orain dela urtebete Udalak eta Aldundiak herriko zaborra tratatzeko sinatutako akordioak ez ei du argi zehazten aukera hori bazterten denik.

Urtea bete da Getxoko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak udalerriko zaborraren tratamendua kudeatzeko hitzarmena sinatu zutenetik, ordutik zaborrari eman beharreko tratamendua Aldundiaren ardura da. Hitzarmena sinatzeko garaian ere zaborrari zein tratamendu emango zitzaion gaiak hautsak harrotu zituen, eta zaborra erraustegira (Zabalgardi) eroateko aukerak kontrako ahots asko altxarazi zituen. Getxoko zaborra Jatako zabortegira eroatea lehentasuna izango zela adieraziz lortu zen hitzarmena aurrera eroatea. Alabaina, batek baino gehiagok lehentasun premien ustel usainari jarraika-edo iragarri zuen zaborrek Zabalgardi erraustegirako bidea hartuko zutela goiz ala berandu. Martxo erdian-edo PSE-EEko udal ordezkari Luis Almansak hedabideen aurrean jakinarazi zuen Getxoko zaborrak Zabalgardiara erosten zebilela Aldundia, eta handik egun batzuetara egiaztatu zuten berria Aldunditik. Horrenbestez, hitzarmenaren mamiari begira ipini ziren batzuk: Aldundiak hitzarmena ez zuela betetzen uste zuen Ezker Batuak eta hori ziurtatuz gero auzitara erango zuela erakunde. EAJ eta EA alderdikaz batera Gobernu taldea osatzen du EB alderdiak, Gobernu taldearen oniritziagaz onartu zen hitzarmena, eta EBk erraustegiarren aukera bazterten bazuen ere sinatutako



Herritar bat eguneroko zarama botatzen Getxon

akordioak ez ei du argi eta garbi hori zehazten. Ostera, martxoko berriek eztabaida berpiztu dute.

Bestalde, hitzarmena betetzen duela dio Aldundiak *“hondakinen tratamendurako ingurugiroarekiko iraunkorra eta ekologikoki arduratsua den metodoa jarraitu behar*

«Otsailtik-edo Getxoko hondakinak Zabalgardiara eroran ditu Aldundiak»

duela bakarrik zehazten du hitzarmenak; Getxoko hondakinak Zabalgardiara eroateak Udalgaz dugun akordioa betetzeaz gainera, hondakinen kudeaketarako araudi europarrak ere betetzen ditu”. Getxoko alkate Iñaki Zarrakoa ere berretsi du Aldunditik esandakoa, eta EAJ-EAren esanetan *“Europako*

erakundeek egindako zabor-tratamenduen hierarkiagaz bat gatoz, eta hor zabortegiak erraustegien atzetik daude”, alegia, ingurugiroarekiko kalte handiagoa egiten ei dutela zabortegiak erraustegiak baino.

Enbataren ostean, martxoko azken Udaltzain EBk zelanbait baretu ditu bere urak. Aldundiagaz daukan hitzarmena bertan behera uzteko PSE-EEk aurkeztutako mozioa ez zen onartu; EBk zaborraren eztabaida Tokiko Ingurumen Forora erotea eta horrek eta Udaleko Idazkariak hitzarmenaren gaineko txosten bana egiteko proposamena onartu zuen; azkenik, Getxon zabor-tratamendurako konpostgintza planta bat eraikitzeke proposamena aztertzeko PPren mozioa onartu zen, PSE-EE eta EBren aldeko botoakaz. ○

GEHI Euskara merkataritzara

Fruta-denda, harategi eta arrandegietan **euskaraz!**



Hainbat produkturen euskarazko izena eskaintzen duten horma-irudiak banatu dituzte Getxoko dendetan

Merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera sustatzea helburu duen GEHI-Euskara Merkataritza egitasmoak beste ekimen bat dauka martxan: “Fruta-denda, harategi eta arrandegietan ere euskaraz” izenburupean hainbat produkturen euskarazko izena eskaintzen duten horma-irudiak banatu dituzte Getxoko esparru horietako hainbat saltokietan.

Horrez gainera, GEHI-Euskara merkataritzara egitasmoaren barruan beste jarduerak batzuk egiten jardun dute orain arte arduradunek, besteak beste, merkataritza sektorea jardueraz jarduerara landu dute eta 799 dendatan izan dira eta horietako 975 langileguz elkarriketak izan dituzte. Hortik hurrengo ondorioztatu dute: saltokien %22an euskaraz egiteko aukera dago, hau da ia 4tik 1en euskaraz egin daiteke. Langileen euskara maila ere azter-

tu dute: 130 euskaldun alfabetatuak dira (%13,3), 32 euskaldun alfabetatubakoak, 187 saltzailek apur bat ulertzen dute eta 626k ez dakite ezer (%64,2).

Bestalde, Udaleko Euskara Zerbitzuaren bidez merkatariek hainbat zerbitzu eta laguntza lortu ditzakete, esaterako, itzulpen zerbitzua, maketazio eta aholkularitza zerbitzuak, errotiluak euskaraz ipintzeko eta euskara ikasteko diru-laguntzak... Era berean, lehenago bultzatutako eta arrakasta izandako hainbat jarduerak berriro ere martxan jartzeko asmoa ere badute: *Ospatu eta oroituz euskaraz* argitalpena, *Oparituz euskaraz* liburuxka... Amaitzeko, Euskara Zerbitzuaren eta BBKren diru-laguntzaz aldez-kari honek sasoiaren sasoiako barazki eta fruten sukaldako horma-irudi bana argitaratu ditu (UKren bulegoan doan eskuratu daitezke). ○

HAURRESKOLA 2008AN ZABALDUKO EI DUTE

Orain arte Getxoko haurreskolak ekimen pribatukoak ziren. Ostera, oraintsu atera du Getxoko Udalak lehiaketara haurreskola bat egiteko proiektuaren idazketa eta lanen zuzendaritza. Haurreskola San Ignacio ikastetxearen eraikin txikian lekutuko dute: behean jolasgunea egongo da, eta goiko 2 solairuetan gelak, zuzendaritzaren bulegoa etab. Soilaru bakoitzean launa gela egiteko asmoa dute, hala umeentzako 85 bat leku leudeke, 0-1 urteko umeentzat 32 leku eta 1-2 urte bitartekoentzat 53. 0-2 urteko hezkuntza sistema ez da derrigorrezkoa, eta udal arduradunek esan legez eskaintza hau eskaintza pribatukoarenaren pareko ordaindu beharko dute gurasoek. Udaltik iragarri dutenez 2008rako zabalduko dute eta euskara izango da bertako hizkuntza.

BESTE BI HILE LANAK AMAITZEKO

Portu Zaharrera doan bidea zabaltzeko lanak iazko uztailean hasi ziren 9 hileko epean amaitzeko helburuagaz. Lanen amaiera beste bi hile gehiago atzeratzea onartu du Udaltzainak, beraz udaldi amaierara arte lanak ez ei dira amaituko. Getxoko alkate Iñaki Zarrak argudiatu duenez atzerapenen arrazoia hau da: berez zailtasunak zituzten lanetan ezustekoak sortu dira; azken afrontuak lanak geldiarazi zituen, lotu barik ipinita zeuden hodi batzuk eroan zituelako. Egitasmo honetara Udalak 2 milioi euro zuzendu ditu.

TALASOTERAPIA ZENTROA ERAIKITZEKO IKERKETA

Portu Zaharreko orubean talasoterapia zentro bat eraikitzearen bideragarritasuna aztertzeko ikerketa egitea lehiaketara atera du Getxoko Udalak. Kontrako ahotsak eragin dituen proiektu hori ezin zitekeen aurrera eroran HAPO aldatu barik, orubea erabilera publikoko ekipamendutzat jotzen zelako, alabaina, bakarrik Gobernu taldearen aldeko botuakaz behin-behinean erabilera pribatua eman zioten.

san inazio
autoeskola
1951n sortua
LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak
Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Garaizar
berrikuntzak
• igeltzeritza orokorrean
• etxebizitzak eta lokalak
• gremioak
tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • regarizar@euskalnet.net
Ileta kalea 1 • ALGORTA

ALERGIA
ASMA
ERRINITISA
URTIKARIA
KONJUNTIBITISA
MEDIKOSTA
IMQ-SANTAS-MAPFRE
ALGORTAKO ETORBIDEA 96
48991 ALGORTA
94 460 98 45
CRISTIAN AMEZAGA
MEDIKU ALERGOLGOGUA
RPS 108 06

Getxon bizi:

Bizkaian bizi etorkinei begirako programa martxan da

Bazterketa soziala jasateko arriskuan dauden etorkinei begirako *Getxon bizi: Bizkaian bizi* programa ipini dute martxan Getxoko Udalak eta Munduko Medikuek GKEak, Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzagaz elkarlanean. Bizkaiko beste herri batzuetan ere abian da baztertuak izateko arriskuan dauden etorkinei zuzendutako gizarteratze, sustatze eta prestakuntza eskaintzeko

«Ikastaroak, lantegiak, irteerak etab. apiriletik abendura bitartean egingo dira domeketan»

programa hau eta ikastaro, lantegi, topaketa eta irteerez baliatuko da arriskuari ihes egiteko asmoz. Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Iñaki Urkizak jakinarazi duenez, *«Getxoztarren %5,4 etorkinak dira (4.459 erroldatuak), eta etorkinen %4,58 Hego Ameriketakoak dira, Bolivia (1.264 lagun), Kolonia (408) eta Ekuadorrekoak (359) gehien bat; baita Errumaniakoak (291) ere; bestalde %60 andrazkoak dira»*. Jarduerak apiriletik abendura bitartean egingo dira domeketan (10:00-14:00); horien gaineko informazioa jasotzeko eta izena emateko:

Gizarte Zerbitzuak: 94 466 01 30



Susi Asteinza > Eskuz Esku emakume elkarteko presidentea

“Lanbide prestakuntza ematea da gure helburua, aisialdirako eskaintza ere badugu”



Elkarteko lehendakaria eta idazkaria Harremanetarako: 94 430 0 835

Apirilaren 19an ospatu zuen Eskuz Esku elkarteak 10. urteurrena. 1.100 elkartekide inguru dauka, gizonak ere bai; eta urtean batez beste 700 bat lagunek parte hartzen dute antolatzen dituzten ikastaro, lantegi edota irteeretan. Horietan parte hartzeko elkartekide izan behar duzu (urtean 10 euro).

—10 urte dagoeneko, helburu beragaz?

—Lanbide eta lan prestakuntza, trebakuntza ematea zen hastapenetan gure helburua eta gure egitekoaren oinarria, lan duina lortzeko begirako prestakuntza eskaintzea, gaur ere zelanbait horrela izaten jarraitzen du baina aisialdirako eta atseginerako jardueren eskaintza handiagoa daukagu. Klinika eta geriatría laguntzaileentzat-eta hezkuntza ikastaroak ematen hasi ginen, orduan Lanbide Heziketako zikloak bazeuden; orain, osteria, ia desagertu egin dira eta dagoen hezkuntza eskaintzari egokitu behar izan dugu, DBHri begira ipini gara, baina arlo horretan ere gauzak ez daude lar argi. Eskola-graduatu eta unibertsitarioaren artean dagoen hutsunea nahiko handia da, Ziklo Ertaineko eskaintzari lotutako zerbait antolatzen ahalegintzen gabilta. Prestakuntzaren helburua ez dugu

inoiz baztertzen gure oinarria hori delako, nire iritzi prestakuntza daukan pertsona batek arazoei eta konpromisoei aurre egiteko gaitasun handiagoa dauka. Ondo ikusten dut dantza ikastaro bat hartzea, horrelako ikastaroak ere baditugu, baina nik jendeak trebakuntza eta tituluak edukitzearen alde borrokatzen dut, azken finean, horiek direlako bizitzan baliagarri izango zaizkionak. Prestakuntzari dagokionean eskaintza batzuk aipatzearen: osasun-oposizioak prestatzeko ikastaroak, informatikako hainbat maila eta programaren gainekoak (adb. diseinu grafikoa) eta kultur lantegi eta ikastaroak ditugu; aisialdiari zuzendutakoak asko dira, guztira 42 ikastarok osatzen dute elkartearen eskaintza. Lantegiak ere baditugu (yoga, antzerkia, dantzak, memoria indartzeko...). Uzten dizkiguten lekuetan ematen ditugu ikastaroak: ikastetxe, institutu, patronatoan... Gainera-koan, hitzaldiak, kultur asteburupasak etab. antolatzen ditugu eta urtean bi bidaia luze egiten ditugu, aurten Alemaniara joango gara. Urtero eskaintza zabaltzen ahalegintzen gara eta datorren urterako bi ikastaro darabilzkigu buruan: barreterapia eta reflexoterapia.

—Emakumeen joeretan aldaketarik antze-man duzue urteotan?

—Leioako Andrak elkartearen jardun nuen Eskuz Esku sortu baino lehenago. Leioa eta

«Datorren urterako bi ikastaro berri eskaintzeko asmoa daukagu»

Getxo Uribe Kosta badira ere, nire ustez Getxoko andreak gehiago jotzen dute “atseginarekin” edo aisialdiaren aldetik, pilates, gimnasia eta horrelakoetan parte hartzeko joera handiagoa dute, ez hainbeste lanbideagaz-eta lotutako prestakuntza jardueretan. Horixe da behintzat nire ikuspuntua. Proiektu eder asko egiteko asmoa eduki dugu eta eskaera handirik egon ez denez ez dira gauzatu. Agian, andre getxoztarren kezka eta asebeharrak beste batzuk dira. ○

Kantuketan, maiatzak 3-5 Oskori, Txuma Murugarren, Haur Kantari txapelketa, Berri Txarrak... egitarauaren zati



Argazkian, Berri Txarrak taldeko kideak

Euskal musika taldeak zein bakarlariak batzeko topaleku izateko sortu zen Kantuketan musika zikloa antolatu du urtero legez Udala Euskara Zerbitzuak. Musika zikloak Getxon egingo duen 5. emanaldi hau maiatzaren 3tik 5era bitartean izango da eta Kantuketan programak duen euskal musikaren aniztasuna eza gutzera eman eta bultzatzeko helburu nagusiari jarraiki, aurten ere, hainbat musika estiloko emanaldigaz gozatzeko aukera edukiko dute Getxora bertaratu direnek: haurrei zuzendutako kantaldi, ikuskizun eta txapelketak; bakarlari zein kantaautoreak; folk, pop edota rock kontzertuak...

Hala, lehenengo egunean (hilak 3, 17:00) haurrei begirako ETBren *Egin Kantu* ikuskizun-

na egongo da Erromoko Santa Eugenia plazan. Horren ostean, Getxo Antzokira hurbildu beharko dute, sama ondo berotuta, Oskorriren Pub Ibiltaria XI. egitasmoagaz gozatu eta abestu gura dutenek (19:30; sarrera: gonbidapenagaz, Algortako kultur etxean har daitezke).

Hurrengo egunean Algortako The Piper's Irish Pubean (hilak 4, 20:00) Txuma Murugarrenek eutsiko dio Kantuketan lekukoari (sarrera doan).

Azkenik, bi emanaldi iragarri dituzte musika zikloari amaiera emateko (hilak 5): Getxo Antzokian lekutuko den Haur Kantari Txapelketa (19:00) eta Portu Zaharreko karpapeak hartuko dituen Berri Txarrak eta Lisabö taldeen kontzertuak (20:00, sarrera doan). ○

GETXO LINGUAE MAIATZAREN 16AN ETA 17AN EGINGO DA

“Literatura Hezkuntza XXI. mendeko ikasgeletan” izango da maiatzaren 16an eta 17an Igeretxe hotolean egingo den aurtengo Getxo Linguae jardunaldietako gai nagusia. Jardunaldiotan izena emateko epea maiatzaren 4ra arte egongo da zabalik. Berritzeguneko antolatzaileek aurreratu dutenez beste aditu ezagunen artean Unai Elorriaga eta Laura Mintegi gonbidatu dituzte jardunaldiotara eta hurrenez hurren hitzaldi hauek emango dituzte: *Bihar-etziko literatura eskolak eta Literaturaren magia ikasgelan*.

Informazio gehiago:
www.getxolinguae.net edo 94 480 60 00

LIBURUAK UZTEGATIK ORDAINDU BEHARKO DUTEN CANON-AREN KONTRA

Liburuak uztegatik zenbateko bat ordaintzera derrigortuko dituen Europar Batasunaren canonaren kontra agertu dira Getxoko liburutegiak. Horrela agertzeko arrazoia Unescoren Kultura-aniztasun Deklarazio Unibertsalari lotzen diote, hor zehazten denez kultur ondasun eta zerbitzuak “ezin dira besteak legez merkantzia edo kontsumogaitzat hartu”. Liburutegien iritzi canonak “eragin latza izango du liburuak erosteko aurrekontuetan, ondorioz baita egile eta irakurleengan ere, eta hain egoera larria bizi duen irakurzaletasunean ere”.

EXTRAS: STONES IN HIS POCKETS HILAREN 6AN

Maiatzaren 6an (19:00, sarrera 6 euro) Getxo Antzokian antzeztuko duen *Extras: Stones in his pockets* antzerkia ez da Maskarada konpainia bilbotarrak taula gainean daukan lan berriena, baina bada aurretik txalo bero-beroa eta zenbait sari eskuratu dituena.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Javier Mendizabal > Quicksilver taldeko skaterra

“Arrigunaga skateagaz ibiltzeko lekurik bereziena da”

Apirilaren 21ean, Munduko Skateboard Txapelketa-Bowlriders World Cup-en sailkapenerako proba egin zuten Leioako Skate Park berrian. Bertan izan zen epaile lanetan Javier Mendizabal leioaztarra, Quicksilver taldeko skater ezaguna. Hurrengo probak, Atenasen, Milanen, Marsellan, Lisboan, Pragan, Londresen eta Seattlen izango dira. Finala, berriz, Suediako Malmo hirian.



Argazkian, Javier Mendizabal

—Noiz hasi zinen skateagaz?

—12 urteaz hasi nintzen, Leioan bertan. Hasieran beste gauza dibertigarri bat besterik ez zen, baina denboragaz harrapatu ninduen. Bizi nintzen lekuan, surf eta skatea praktikatzen zuen sei neba-arrebako sendia zegoen eta adidi begiratzen nien.

—Asko bidaiatzen duzu. Patinatzeko beti ere?

—Gehienetan bai. 14 urteaz hasi nintzen eta orain nire lanaren zati garrantzitsua da. Denbora librean daukadanean ere, bidaiatzea gogoko dut, mendira batez ere. Indarberrituta bueltatzen naiz.

—Non egon zara?

—Patinagaz Japonen, Australian (urtero birritan joaten naiz), Txinan, AEBetan...

Baina gehien liluratu nautenak, hain zuzen ere, skatea barik joan naizen lekuak dira: Himalaia, Ghana... Uda honetan Islandiara joan gura dut.

—Zeintzuk izan dira zure lorpen handienak?

—Ez naiz inoiz txapelketetako skaterra izan. Lorpenik handiena nazioartean daukadan aintzatespena da; eta hemengo izanda ez da erraza izaten.

—Harrobi ona dago Euskal Herrian?

—Hemen betidanik egon da maila altua. Skatea penintsulan sartu zenean, Madril, Bartzelona eta Algorta ziren lekurik onenak.

«Lehen ia ezinezkoa zen neska skater bat ikustea, gaur ez da hain arraroa»

Gaur egun, ordea, ez dauka hainbeste jarraitzaile, baina badago zeresana ematen duenik: Javier Sarmiento, Alain Goikoetxea...

—Eta neskak?

—Gutxi daude. Halere, gero eta gehiago animatzen dira. Lehen ia ezinezkoa zen bat ikustea, baina gaur egun ez da hain arraroa.

—Zeintzuk dira patinagaz ibiltzeko hemengo lekurik onenak?

—Leioako pista berria oso ondo dago, eta uste dut Gasteizen ere berri bat egin dutela. Horrez gain, skater asko Basauriko Ibarrola plazan ibiltzen dela entzun dut. Baina nire ustez lekurik onena Arrigunaga da. Oso berezia da, nire etxea izateaz gain, nire lagunak bertan daudelako. Askotan urrutiko lekuetan ibiltzen naiz, baina Arrigunaga da nire haurtzaroko oroitzapen onenak gordetzen dituenena. ○

Sanbar Blues Festival

Musikaz blai, udaberriari harrera beroa egingo dio San Bartolomeko Auzotarrok elkarteak



Auzoko plazan eskainiko dituzte kontzertuok. Argazkian, Mister Hurricane taldeko kideak

Aurten ere, udaberriari ongietorria emateko jaia antolatuko dute Leioako San Bartolome auzoko Auzotarrok elkarteok. Hitzordua maiatzaren 5ean izango da, antzinako eskolen inguruan. Urtero legez, 400 bat pertsona batzea espero dute antolatzaileek. Horretarako, adin guztietarako egitarau zabala prestatu dute.

Egun horretan egiten den Sanbar Blues Festival jaialdia ekitaldirik garrantzitsuena dela esan daiteke, baina aurretik bestelako ekintzatan parte hartzeko aukera ere egongo da. Horrela, 14:00etan, 250 bat laguntzako herri bazkaria eskainiko dute. Eguraldi ona eginez gero, inguruko landetan dauden mahaietan egingo da otordua. Ondoren,

17:00ak aldera, umeentzako jolasak egongo dira.

Arratsaldean, berriz, blues kontzertuen txanda izango da; 19:30ean hasiko dira, auzoko enparantzan. Urtero legez, hiru izango dira parte hartuko duten taldeak. Oraingoan, *The Longboards*, *The Reverends* eta *Mister Hurricane Band* ikusteko aukera egongo da.

Jaialdiaren hirugarren edizioa izango da aurtengoa eta Leioako Udalararen zein Basque Country Blues Association elkartearen laguntza eduki dute Auzotarrok taldeko kideek egitasmoa aurrera eroateko orduan.

Aukera polita, beraz, familiagaz zein lagunak jateko ederra egin eta musika onaz gozatzeko. Ez ezazu galdu! ○

OSKORRIREN THE PUB IBILTARIA KULTUR LEIOAN

Maiatzaren 13an, domeka, Oskorriren *The Pub Ibiltaria* parte hartzeko aukera egongo da. Hitzordua 12:00etan izango da Aldapa entzutegian. Sarrera, berriz, doan. Publikoa da daborduko 11 urte bete dituen proiektu honetako protagonista nagusia. Beraz, musika tresnaren dat edukiz gero, eroateko eskatu dute Oskorrikoek. Gainera, aurretik prestatu gura duenak, letrak zein partiturak eskuragarri edukiko ditu Kultur Leioako Euskara Zerbitzuan. Anima zaitetz!

BIDEGORRIA IPINIKO DUTE PINOSOLOKO PARKEAN

Pinosoloko parkean bidegorria eraikitzeak 300.000 euroko aurrekontua edukiko du Leioako Udalak. 250 metroko luzera eta 2,5 metroko zabalera edukiko ditu txirinduentzako errai berriak. Skate-parketik irten eta Artatzako suhiltzaileen ondoan amaituko da, beti ere arbolak errespetatuz. Bidegorriaren alboan, berriz, oinezkoentzako pasabidea eraikiko dute, 4 metroko zabalera. Halere, ezin izango dituzte lanok 2008a baino lehen hasi, Udalararen esanetan, oraindik lursailak erosi behar dituztelako.

MAIATZEAN NEKAZAL AZOKA ANTOLATUKO DUTE PINUETAN

Maiatzaren 13a da Pinuetako Nekazal Azoka antolatzeko aukeraturako data, 10:00etatik 14:00etara. Egitasmoan, 25 bat euskal baserrik hartuko dute parte (hortuariak, gaztaia, lorak, txakolina, pate...) eta antzinako lanbideen erakustaldia ere egingo dute (egurrezko kateak, artilea...). Horrez gain, sagardoa eta txistorra dastatzeko aukera egongo da 12:00etatik aurrera. Umeentzako ekintzak ere egongo dira; besteak beste, ponian ibiltzeko aukera edukiko dute. Animaliak ere ikusgai ipiniko dituzte: zaldiak, idiak, ardiak, ahuntzak...

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

[erandio]

Felix Blanco > Lutzana Arraun Taldeko idazkaria

“Arraun taldea izugarrizko krisialdian sartuta dago momentu honetan”

Lutzana Arraun Taldeko idazkaria da Felix Blanco gaur egun. Kluba jasaten ari den krisialdiagaz arduratuta, patroï lanak utzi eta beste hainbategaz taldearen kudeaketa bere gain hartzea erabaki zuen orain dela hil batzuk arraunlari gazteak. Ibilbide handiko taldea da Lutzanako; ofizialki 1930ean sortu bazuten ere, arinago arraunean ibiltzen ziren-eta bertakoak. Orain, berri, desagertzeaz dagoen elkarte berpizten saiatuko dira herritar batzuk, tartean, Felix.



Argazkian, Felix Blanco

—Estropaden munduan klub esanguratsua da Lutzanakoa.

—Ez da inoiz maila handiko taldea izan, baina Ibaizabalen ibilbide handienetarikoa daukana da. 1930ean hasi ziren bertokoak ofizialki arraunean, bertan egindako traineru bategaz, *Aurora*. Berehala, beste bat egin zuten, *Boreal*, eta horrela hasi zen dena. Nahiko talde irregularra izan da beti, baina orain izugarrizko krisialdian sartuta gaude.

—Zer gertatu da ba?

—Joan den denboraldian, Isuntzagaz (Lekeitio) batera atera genuen trainerua eta horrek ondorio latzak ekarri zituen; izan ere, Lekeitiokeok gure taldea xurgatu zuten. Badakit hau esatea ez zaiela Isuntzakei gus-

tatuko, baina halaxe da. Denboraldia amaitzean egoera nahiko konplikatu zen eta bertoko arraunlari asko beste talde batzuetara jo zuten. Gaur egun ez daukagu arraunlari bat bera ere.

—Bat ere ez?

—Bat ere ez!

—Harrigarria da hori.

—Isuntzan dabilen bertoko mutil bat eta fitxa daukaten neska bi kenduta, ez daukagu talderik. Iaz, egoera ekonomikoa nahiko

kaxkarra zela ikusita, taldea gure ardurapean hartzea erabaki genuen batzuek.

—Eta zer egin gura duzue?

—Arraun eskola bat egin gura dugu. Oinarritik hasi gura dugu eta gaztetxoek aukera eman. Arraunean egiten duen 35 urteko jendea dago, baina ez dago gazterik. Trainerua edukitzea ez du ezertarako balio atzetik belaunaldi berriak etorriko ez badira.

«Lutzanann bertoko jendea edukitzea gura dugu»

Arraunlariak kontratatzen dituzten klubak badaude, baina ez daukate harrobirik. Maila altua edukitzea ez da gure ardura, Lutzanan bertoko jendea edukitzea gura dugu.

—Arrauna udalerrian sustatzeko jai bat antolatu duzue daborduko.

—Bai, bazkideak lortzeko egin genuen; izan ere, estatutuak aintzat hartuz gero ez daukagulako. Hau da, hiru hiruhilekotan kuota ordaintzen ez baduzu, bazkide izateari uzten diozu automatikoki. Askori hori gertatu zaio eta jai horiek berreskuratzeko zein berriak egiteko antolatu genuen.

—Ikastetxeetan ikastaroak emango dituzue.

—Bai. Arrauna oso ondo uztartzen da joko-agaz, ura oso erakargarria da-eta nerabeentzako. Ezaugarri horri etekina atera gura diogu eta taldea aurrera atera. ○

Lanparak birziklatu

Espainiako Estatuko 12 erkidegoren **fluoreszenteak** tratatuko ditu Erandioko Indumetal Recyclingek



Aurten 11 milioi lanpara birziklatzea espero dute enpresako arduradunek

Erandioko Indumetal Recycling eta Ambilamp irabazi asmorik gabeko elkarteak lanpara fluoreszenteak birziklatzeko lan-kidetza hitzarmena sinatu zuten joan den hilean. EAEko hodiak tratatzeaz gain, Espainiako Estatuko 12 erkidegotakoak ere hartuko dituzte: Asturias, Cantabria, Errioxa, Kanariar Uharteak, Madril... Beraz, arlo horretan erreferente bihurtuko da Indumetal Recycling.

Garbiguneetan batuko dituzte lanparok eta makina batek horiek apurtu zein materialak banatuko ditu (beira, metala eta merkurioa). Hurrengo pausoa, fosforo hautsa isolatzea izango da, segurtasun biltegietara bidaltzeko.

Iaz, 223 tona argi-hondakin batu zi-

tuen Erandioko enpresak, oraindik material horiek birziklatzeko ohitura ez dagoen arren. 41 tona EAEkoak izan ziren, beraz, Estatuko bigarren kopuru handiena Madrilan atzetik.

Halere, kopuruak gora egingo duela diote erakunde bietako arduradunek eta 2011n merkatuko lanparen %70 birziklatzea espero dute.

Fluoreszenteak beste barik botatzeak izugarrizko kalteak eragiten ditu ingurumenean eta hori ekiditea da hitzarmenaren asmo nagusia. Birziklatzean, lehengai moduan erabiltzeko material ugari berreskuratuko dute (merkurioa eta fosforo hautsa esaterako), bestelako produktuetan erabil daitezten. ○

IRAKURRI, GOZATU ETA OPARITU BERBOTSEN ESKUTIK

Irakurri, gozatu eta oparitu kanpaina abian jarri dute Berbotsek eta Topaguneak Erandion. Horrela, liburutegian euskarazko 100 bat liburu egongo dira aukeran irakurtzeko. 90 Patxi Zubizarreta idazleak aukeratutakoak izango dira. Behin liburua irakurrita, horren inguruko fitxa sinplea bete beharko du irakurleak. Ondoren, deskontu txartela jasoko du liburua besteren bati oparitzeko. Egitasmoaren helburu nagusia irakurzaletasuna bultzatzea da, baita euskararen erabilera gozagarria sustatzea ere.

UDA AURRETIK HASIKO DA OBIETA KALEKO LANEN BIGARREN FASEA

Obieta kalean berriztatuko zatia berriki inauguratu badute ere, Geltokia kalea eta Altzaga-Goikoa errepidearen arteko zatia berrizteko lanak hasiko dituzte uda baino lehen. Sei hilen buruan lanak amaituta egotea espero du erandioko Udalak. 924.532 euroko aurrekontua edukiko du proiektuak eta oinezkoentzako pasabideak ere zabalduko dituzte. Horrez gain, Txorierrri, Txinboak, Nafarroa Behea, Desanexion, Bekoetxe eta Pagoeta kaleakaz dauden loturak ere konponduko dituzte.

GIZARTE LAGUNTZAK JASOTZEN DITUZTENEN KOPURUA IGO DA

Guztira, emergentziazko 767 diru-laguntza eman zituen Udalak. Azken ekitaldian, beraz, 585 onuradun egon dira, 2005ean baino 67 pertsona gehiago. Laguntzek 606.623 euroko aurrekontua eduki dute, baina ez dituzte egindako eskari guztiak onartu. 2006an 250 txosten berri ireki zituen Erandioko Udalak, horietatik 115 etorkinenak. Bestalde, iruzurrak ekiditeko plana martxan jarriko dute Erandion, izan ere, laguntzak jaso eta ezkutuko ekonomian behar egiten duenik badago.

Arasa
Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa

Sarikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



Arazoei agur... **902 54 08 54**

www.arlan.biz

INFORMAZIO PANEL BERRIA IPINI DUTE KULTUR ETXEAN

Herritarrek informatzeko panel berria ipini du Sopelako Udalak Kultur Etxean. Besteak beste, udalerrian egiten diren kirol ekintzen emaitzen berri emango du kartel argiztatuak. Aurretik zegoen panela, oster, Larrabasterrako metro geralekuaren ondoan ipiniko dute, bertako auzokideak ere informatuta egon daitezzen. Herritarrenganako arreta eta horiei eskaintzen zaien informazioa hobetzea da egindako berrikuntzaren helburu nagusia.

BIZKAIBUSAREN IBILBIDEA ALDATU DUTE SOPELAN

Areeta eta Armintza lotzen dituen A-3451 Bizkaibusaren ibilbidea aldatu du Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Sailak. Behin Uribe Kostako korridorea irekita, trafikoaren dentsitatea aldatu egin da inguruan eta Larrabasterrako geralekua kentzea erabaki du Aldundiak. Horren ordez, beste hiru geraleku ipiniko ditu: bi Sopelan bertan eta bestea Berangon. Beraz, hemendik aurrera, Sopelatik igarotzen denean, Urgitxetan, Zipiriñen (Sabino Arana kaleko 32aren aurrean), Atxabiribileko bidegurutzean eta San Andres basilizan geratuko da autobusa.

SAHARARENTZAKO 3,5 TONA ELIKAGAI BATU DUTE SOPELAN

Sopelako Udalaren babesa daukan Nuyum elkarteak 3,5 tona elikagai batu ditu Saharako akanpalekuetara bidaltzeko. Auzokideek Hall Kulturallean utzitako produktuak dira bertara eroango dituztenak: arroza, lentejak, azukrea, atuna... Daborduko Saharara joango den euskal karabanen daude Sopelatik irtendako elikagaiak. Bestalde, akanpalekuetako umeak udan hartzeko Oporrak bakean programa martxan jarri dute Nuyumekoek. **Info: 695 788 185**

Itsas Joko Atlantikoak

Hitzarmena sinatu dute **Sopelak** eta **Getxok** **Euskal Kirol Federazioen Batasunagaz**



2008ko uztailean izango dira Itsas Joko Atlantikoak

Euskal Kirol Federazioen Batasunak, EKFBk, eta Sopelako eta Getxoko Udalek Uribe Kostako udalerrri bietan 2008ko uztailean egingo diren XIV. Itsas Joko Atlantikoak antolatzeko hitzarmena sinatu dute. Bela, surfa, arrauna, piraguismoa eta urpekaritza dira nazioarteko kirol ikuskizunak batu dituen modalitateak.

Britainian sortu zituzten jokoak, 1995ean. Gaur egun, Nazioarteko Batzordea osatzen duten herrialdeetako ordezkariak, tartean Euskal Herriak, hartzen dute parte egitasmoan (9 eskualdek eta Europako ardatz atlantiko 5 herrialdek: Irlanda, Cor-

nualles, Gales...). Euskal selekzioa da, hain zuzen ere, azken bi edizioetako txapelduna. Etorkizunean bestelako herrialdeetara zabaldu gura dituzte jokoak: Kanariar Uharteak, Katalunia, Andaluzia...

Jokoetan mila kirolaririk gora batzea espero dute antolatzaileek. Kirol astea, gainera, kultur egitarau garrantzitsu batez osatuko da, tokian-tokiko ezaugarriak dituzten kontzertu eta ikuskizunakaz. Sopelako eta Getxoko probek Joko Olinpikoakaz bat egingo dute, beraz, Pekinera joango ez diren kirolarientzat aukera paregabea izango dela uste dute antolatzaileek. ○

Maia Letamendia > artista eta diseinatzailea

“**Klimt** eta **Hundertwasser** artistak dira nire inspirazio iturri nagusiak”



Sopelako Laiak tabernan ikusgai ipini ditu Maiak bere koadroak

Orain dela urte bi Arte Ederretako ikasketak amaitu zituen Maia Letamendia algortarrak, baina geldirik ezin egon eta Bartzelonara joan zen zapatak diseinatzen ikasteko masterra egitera. “*Arte Ederretan grabatua egin nuen: serigrafia, litografia...*”. Bere obra abstraktutat jotzen du eta kolore biziak gogoko dituela nabarmendu. “*Klimt eta Hundertwasser dina nire inspirazio iturri nagusiak*”, azaldu du 25 urteko artistak.

Horrez gain, lantzen duen artea modagaz ertsiki lotuta doala azpimarratu du, “*batez ere egin ditudan azkeneko koadroetan*”. Izan ere, oihalen mundua berebiziko garrantzia eduki du mihiseak aukeratu eta margozterako orduan. Hain zuzen ere, Sopelako Laiak tabernan ipini ditu gazteak bere lanak ikusgai. “*Bertara doanak ildo nagusi bi jarru ditudala nabaritu du, baina beti emakumearen gorputza biluzik azalduz. Alde batetik, Klimten lanean oinarritutako koadroak daude, oliogaz margoztutako oihalak... Bestetik, egin ditudan azkeneko*

koadroak, Hundertwasser oinarri hartuta. Mihise handietan manikiak itsatsi ditut. Lan koloretsuak dira, abstraktuak eta beti ere emakumea gune dela”.

Modaren mundua

Arestian esan bezala, diseinu lanak ere egin ditu Maiak. Maiatzean, esaterako, Creamoda txapelketara aurkeztuko ditu bere lan batzuk. Ordurako, ez ditu zapatak diseinatuko, arropa baizik. “*Jantziak zure kabuz egitea errazagoa da, zapatak,*

«Senegaleko oihalakaz egindako jantziak aurkeztuko ditut»

ordea, egin behar dizkizute eta diru mordo behar da horretarako. Modaren munduan sartzea da nire lehenbiziko erronka, gero gerokoak. Lehiaketan, nire nebak Senegaletik ekarritako oihalakaz egindako jantziak aurkeztuko ditut, oso etnikoa dena”. Zorte on, Maia! ○

LAIK Taberna

Bentatu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

DIDAK HAMILTON

IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

SABINO ARANA ETA KURTZE AUZOA BATZEKO PROIEKTUA IKUSGAI

Berangoko herritarrek Kurtze auzoa eta Sabino Arana kalea lotu nahi dituen proiektuari buruz euren iritzia emateko aukera izango dute. Maketa Berangoetako Kultur Etxean ikusgai dago eta, nahi duenak, iritzia eman dezake Udaletxean edo Kultur Etxean bertan. Proiektuaren egileak aukeratzeko, lehiaketa bat antolatu zuten pasa den urtean eta IMB enpresa irten zen garaile. Hauek proposatutako azpiegiturak, balio anitzeko gela, areto nagusia, bideoteka eta kafetegi bat biltzen ditu. Horren guztiaren gainetik, ezinduentzat egokitutako arrapala eta eskilerak joango dira. Miren Dobaran Berangoko alkatearen ustez, "proiektuak oztipo fisikoak eta psikologikoak gainditzen ditu eta bi auzoak sozialki lotzeko aukera emango du". Lanak urte batez luzatzea espero da eta 4 milioi euroko aurrekontua daukate. Hala ere, herritarren onarpena lortu arte ez da proiektua behin betirako onartuko.

LIBURUAREN INGURUKO EKINTZAK MAIATZEAN

Liburuaren eguna dela eta apirilean abiatutako egitarau bereziak maiatzeko lehenengo egunetan jarraituko du. Hilaren batetik bostera, tailerrak, pailazoak, ludoteka eta beste hainbat ekintza burutuko dira Moreaga parkean. Maiatzaren 1erako liburu jaia antolatu dute goizeko 11:30etik 14:30era. Bertan puzgarriak, karaokea eta tailerrak egongo dira. Hurrengo egunetan ludotekan parte hartu ahal izango dute bertara hurbiltzen direnak. Egitarau bereziari amaiera emateko, Poxpolo eta Mokolo pailazoen emanaldia izango da zapatuan arratsaldeko 7:00etan.

KALEAN ALKOHOLDUN EDARIAK KONTSUMITZEA DEBEKATU DU UDALAK

Berangoko kaleetan alkoholdun edariak kontsumitzea debekatzen duen ordenantza berria onartu du Udalak. Bizkaian, Bilbo eta Berango dira mota honetako araudi bat atera duten udalerri bakarrak. Herrian burututako azken makrotoloiaren 300 pertsona bildu ziren. Miren Dobaranen ustez, "horrelako ekimenek min handia egiten diote herriari eta herritarrei; ingurugiroa kaltetu eta zarata asko sortzen dute". Udaltzainak eta Ertzainak arduratuko dira kaleen kontrolaz. Arauhaustea 3000 eurokoak izatera hel daitezkeen isunekin zigortuko dira. Horrez gain, Berangoko Udalak gai honekin erlaziozuzeneko kontzientziario kanpainak zabaltzen jarraituko du.

Ibai Arrasate > historialaria

"Berangoko historiaren errepaso txikia egitea da nire helburua"



Herriaren historiari buruzko ikastaroa emango du maiatzean Ibai Arrasatek. Argibide gehiago: 94 668 21 43

Kultur Etxeko lagunek proposatu zioten Ibairi ikastaroaren ideia eta berak gustura eman zuen baiezkia. Historia ikasketak egin ditu, nahiz eta gaur egun Berangoetako kultur etxean egiten duen behar. Oraindik ez dauka guztiz zehaztuta ikastaroaren programa zein izango den, baina argi dauka bost ordutan ez daukala azalpen korapilatsuetan sartzeko astirik: "Berangoko historiaren eta eraikin nagusien errepaso txikia egitea da nire helburu nagusia".

"Paleotito garaiko aztarnak aurkitu dira Muñarrikolandan"

Herri txikia den arren, sekretu asko gordetzen ditu Berangok: "XVI-XVII. mendeetako baserri nahiko daude. Gainera hirurorretxe ditugu eta hauen gainean gauza asko daude esateko". Eraikinen bizitza azaldu ahal izateko, Euskal Herriko familia ezagunenei buruz hitz egingo du, Ganboatzerri eta

Oinaztarrei buruz, alegia. Horrez gain, Muñarrikolandako mendixkan aurkitutako paleolito garaiko aztarnak aipatuko ditu ere. Eraikinak bertatik bertara ezagutzeko aukera ematea gustatuko litzaike Ibairi: "Baserrietara eta dorretxeetara hurbiltzea gustatuko litzaidake, baina ez dakit denbora izango dugun".

Maiatzeko bost ostegunetan izango dira eskolak, 19:30etik 20:30era. Dagoeneko sei pertsonak eman dute izena: "Ez dut uste jende asko hurbilduko denik. Suposatzen dut jende gehiena nagusia izango dela, nahiz eta nik adin guztietako jendearentzat aproposa den ikastaroa prestatu dudana". Ez dago finkatuta eskolak zein hizkuntzatan izango diren: "Hori etortzen den jendearen arabera izango da. Jende euskalduna hurbiltzen bada eskolak euskaraz emateko prest nago". Aukera polita da, izan ere, askotan urruneko kontuak ezagutzen ditugu, baina ez ditugu gure herrian bertan gertatu zirenak ezagutzen. ○

Eneko Alvarez > Xurut tabernako jabea

"Musikaren gobernuz kanpoko erakundea da Xurut"



Kontzertuen inguruko informazio gehiago gura izanez gero: www.myspace.com/xurut

22 urte daramatza Gorlizko Xurut tabernak irekita, 1985ean Eneko Xurut Alvarezk ireki zituen bere ateak. Gutxinaka-gutxinaka kontzertuak antolatzen hasi zen eta noizbehinka Doctor Deseok, Altos Hornosek eta antzerako taldeek jotzen zuten. Halere, 1991ean hasi zen Eneko kontzertuak modu jarraian antolatzen. Proba moduan, *El Inquilino Comunista* talde entzutetsuak jo zuen eta, ondoren, *Nuevo Catecismo Católico*. Ordutik, hainbat izan dira Xurruetako taula gainetik igaro diren musikariak. "Alde batetik, musika independentearen eztanda izan zen; bestetik, Bizkaian ez zegoen kontzertuak antolatzeko areto askorik. Orduan askoz errezagoa zen zeozer antolatzeko: bakarrik geunden eta jendeak oso ondo enantzuten zuen", azaldu du Xurruetako jabeak.

Antolatzen duen kontzertuakaz dirurik ateratzen ez duela argi utzi gura du

Enekok. "Bestelako aretoetan etekina atera gura duen bitartekari asko dago. Gainera, leku askotan ekipoa, teknikaria, aretoa bera... alokatu behar duzu. Gurean ez. Gogoko ditugun taldeak ekarri eta geuk jartzen diegu ekipoa. Horrez gain, afaria ere gure kontu da. Gustura egotea gura dugu. Gainera, ez daukagu inolako aurrekonturik.

"Aretoetan etekina atera gura duen bitartekari asko dago"

Taldeek sarreerakaz batutakoa eroaten dute eta guk ez diegu portzentairik eskatzen. Musikaren gobernuz kanpoko erakundea gara eta ez dugu finantzaketarik gura. Gaztetxe baten moduan funtzionatzen dugu".

Maiatzean eta ekainean 22. urteurrena ospatzeko hainbat kontzertu antolatu dituzte, tartean, *Entzun Mofo Party*. ○

Informazio gehiago: www.myspace.com/xurut



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



Ajuria taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



kopak eta giro jatorria

Alangobarrri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

PLENTZIA ETA GORLIZ GEHIEN HAZI DIRENAK

Sustrai aldizkariak emandako datuen arabera, landa biztanleria %10 igo da 2000 eta 2006 urteen artean. Bizkaian, Plentzia, Gorliz eta Bakio dira gehien hazi diren herriak. Hazkunde honen arrazoiak, azken urteetan errepideetan eta garraio zerbitzuan eman diren hobekuntzak eta etxebizitzaren prezioa izan daitezke, beste askoren artean. Horrez gain, azken urteotan Euskal Herritarren artean ematen ari den landa gunera bizitzen joateko joera izan daiteke beste arrazoietak bat.

ARRANTZALEEN ETXEA ZAHARBERRITUKO DUTE

Lemoizko Udalak 21.000 euro emango ditu Armintzako kaian dagoen Arrantzaleen Etxea zaharberritzeko. Aurrealdea margoztu, egurrezko atalak bernizatu eta arrailak ezabatu dira egingo diren konponketetako batzuk. Gaur egun, Kultur Etxea eta Zaharren Egoitza biltzen ditu arrantzaleen etxeak. Karta txapelketak, bazkariak eta sari banaketak dira etxe honetan antolatzen diren ekintzetako batzuk, beste askoren artean.

PLENTZIA ETA ITSASOA III. MARRAZKI LEHIAKETA

Maiatzaren 13rte Plentziako museoak antolatutako marrazki lehiaketan parte hartzeko aukera izango dute 4 eta 14 urte bitarteko gazteek. Lanek banakoak izan behar dute eta museoko eraikinean aurkeztuko dira. Lehiaketaren helburua, umeek herriko itsas historia ezagutzeko da.

URDULIZ

Herritarren beharren arabera Kultur Etxe berria



Urdulizko Kultur Etxe berria

Martxan dago jada Urdulizko Kultur Etxe berria. Azpiegitura moderno eta zabal honekin, herritarren beharrei erantzun nahi die Udalak: *“Orain arte egon diren leku arazoiei irtenbidea eman ahal izango diegu; gus-tura nago Kultur Etxe berriarekin, herritarren beharrei erantzuten dielako”*, dio Juan Olea alkateak.

Lau gela handi, artxibategia, bulegoak, biltokiak, aldagelak liburutegia eta areto nagusia ditu. Azken honek, bira daitekeen agertoki handia dauka, barne zein kanpo

ikuskizunak antolatzeko aukera ematen duena. Sarrera oso argitsua da eta arte-erakusketak egiteko erabiliko da.

Aukera berri asko eskainiko ditu Kultur Etxe berriak. Beste askoren artean, KZgunea eta ludoteka izango dira herritarren esku egongo diren zerbitzuetako batzuk. Horrez gain, adin guztientzako tailerrak antolatu-ta daude eraikineko sarbide guztiak eta igogailua ere badauka, barrutik erraztasunez mugitu ahal izateko. ○

Api. 30 - mai. 14

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

▶ **Arteskola.**
Algortako erakustaretoa.
Maiatzaren 7tik 12ra arte.
10:00-13:00 eta 18:00-21:30.

LEIOA

▶ **The mother route. Route 66.**
Kultur Leioa. Maiatzaren 7tik
ekainaren 3ra arte. 10:00-20:00.

SOPELA

▶ **Lisboa.**
Asier Bastida argazkilaria.
Erakusketa aretoa. Maiatzaren 7tik
23ra arte.

GORLIZ

▶ **Euskal pilota.**
Erakusgela. Maiatzaren 3tik 9ra arte.
Orduategia egunaren arabera
kontsultatu.

ZINEMA

GETXO

▶ **El mercader de Venecia.**
Getxo Antzokia. Maiatzak 2,
eguzatena. 19:30. Sarrera: 2,90 euro.
▶ **Sophie Scholl: Los últimos días.**
Azpitoludun jatorrizko
bertsioa. Getxo Antzokia. Maiatzak 4,
barikua. 22:00. Sarrera: 2,90 euro.

▶ **American Dreamz.**
Getxo Antzokia. Maiatzak 9,
eguzatena. 19:30. Sarrera: 2,90 euro.

▶ **Tres extremos.**
Azpitoludun jatorrizko
bertsioa. Getxo Antzokia.
Maiatzak 11, barikua. 22:00.
Sarrera: 2,90 euro.

▶ **Shin Chan helduen inperioan.**
Umeentzako zinea euskaraz.
Getxo Antzokia. Maiatzak 13,
domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00.
Sarrera: 2,10 euro.

LEIOA



Oskorrigaz kantatzeko aukera ere egongo da Azokan

▶ Larrabasterra

Sopelako VII. Artisautza Azoka

Maiatzaren 5ean, zapatua, VII. Artisautza Azoka egingo dute Sopelan, Larrabasterrako plazan hain zuzen ere. Bertan, eskuz egindako hainbat produktu ipiniko dituzte salgai. Azokaren orduategia 11:00etatik 15:00etara eta 16:00etatik 21:00etara izango da. Azokaz gain, makina bat ekintza antolatu dute egun horretarako. 12:30etik aurrera, esaterako, Oskorrigaz kantatzeko aukera edukiko dugu bere *The Pub Ibiltaria* proiektuagaz. 14:00etan, berriz, txorizoa banatuko dute dohainik eta 18:00etan umeek Txirri, Mirri eta Txirribitonen *Pailazoketan* ikuskizunagaz gozatu ahal izango dute. Amaitzeko, 19:00etan, txokolatada eskainiko du Urko Mendi Taldeak. Galduko duzu?

• **Non:** Larrabasterrako plaza • **Noiz:** maiatzak 5, zapatua • **Ordua:** 11:00

▶ **Las tortugas también vuelan.**
Auditorium. Maiatzak 8, martitzena.
20:00. Sarrera: 2 euro.

▶ **Kubo magikoa.**
Auditorium. Maiatzak 6, domeka.
12:00 eta 17:00. Sarrera: 3 euro.

ANTZERKIA

GETXO

▶ **Extras: stones in his pockets.**
Maskarada. Getxo Antzokia. Maiatzak
6, domeka. 19:00. Sarrera: 6 euro.

▶ **6 monólogos y una pieza.**
Bilariña. Getxo Antzokia. Maiatzak
10, eguena. 19:30. Sarrera: 3 euro.

▶ **El vendedor del tiempo.**
Ados Teatroa. Getxo Antzokia.
Maiatzak 12, zapatua. 20:00.
Sarrera: 9/7 euro.

LEIOA

▶ **Cincuentones.**
Teatro de la Derrota. Auditorium.
Maiatzak 11, barikua. 20:30. Sarrera:
12 euro.

▶ **Tataracine.**
P. Cachivache. Umeentzako

antzerkia. Auditorium. Maiatzak 13,
domeka. 12:00. Sarrera: 4 euro.

BESTEAK

GETXO

▶ **Hitzaldia: El Prado fuera del Prado.**

Villamonteko kultur etxea.
Maiatzak 3, eguena. 19:00.
Sarrera gonbidapenagaz.

▶ **Egin kantu ikuskizuna (ETB).**
Erromoko Santa Eugenia plaza.
Maiatzak 3, eguena. 17:00.

▶ **Oskorri: The Pub Ibiltaria.**
Getxo Antzokia. Maiatzak 3, eguena.
19:30. Sarrera gonbidapenagaz.

▶ **Kontzertua: Txuma Murugarren.**
Algortako The Piper's Irish Pub.
Maiatzak 4, barikua. 20:00.
Sarrera dohainik.

▶ **Haur Kantari Txapelketa.**
Getxo Antzokia. Maiatzak 5, zapatua.
17:00. Sarrera: dohainik.

▶ **Kontzertua: Berri Txarrak eta Lisabö.** Portu Zaharra. Maiatzak 5,
zapatua. 20:00. Sarrera dohainik.

LEIOA

▶ **Leioako Gazte Orkestra.**
Auditorium. Maiatzak 3, eguena.
20:00. Sarrera: 3 euro.

▶ **Kontzertua: Travellin' Brothers eta Lluís Coloma.** Cafe Ambigu.
Maiatzak 4, barikua. 22:00.
Sarrera: 6 euro.

▶ **Akordeioen, txistuen eta txirulen talde instrumentala.** Auditorium.
Maiatzak 10, eguena. 20:00.

Sarrera: 3 euro.

▶ **Oskorri: The Pub Ibiltaria.**
Aldapa Entzutegia. Maiatzak 13,
domeka. 12:00. Sarrera dohainik.

▶ **Kontzertua (Leioako pop-rock lehiaketa): Falso Dogma, Eko 4, Pog Mo Thon.** Kultur Leioa.
Maiatzak 11, barikua. 20:00.

▶ **Kontzertua (Leioako pop-rock lehiaketa): Sol Lagarto, Monoxide Pills, The Baltic Sea.** Kultur Leioa.
Maiatzak 12, zapatua. 20:00.

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Diliz inguruko arteak



Azkorriko zuhaixkak



Muruko artea



Azkorriko pinudia

Getxoko arbolak

Gure eskuetara Xabier Buenetxeak aspaldian osatutako Getxoko basa zuhaixka eta arbolen gida ailegatu da. Gida horrek Getxoko zuhaitz adierazgarrienak biltzen ditu. Dela euren tamainagatik, dela arrazoi historikoengatik edota arbolen espezie motagatik, zuhaitz baliogatik eurak babesteko neurriak hartu behar direla aldarrikatzen da liburuan. Orrialdeotara arbola horietako batzuk ekarri ditugu.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Iturrikaneko haritzak



Martituriko haritzak



Martituriko arteak




Galea futbol zelaiko arbolak



Saratxagako haritza



Azkorriko karraskila



Matxikortiñeko lizarrak

Idiak Sopelako hondartzan

Fede Merino

Gutxitan ikusiko dugu kresala eta lurra hain lotuta, edo berdina dena, itsas eta nekazal giroak bat eginda. Aspaldi ateratako irudia da UK-ko orriotara ekarritakoa, gaur egun nekez errepikatuko litzatekeena. Idiak probetarako prestatzeko leku aproposa ei zen Sopelako hondartza. Momentu bitxi eta ederra harrapatu zuen argazkilariak. Bai horixe!



SOPELAKO HONDARTZA, 2003

[berbetan]

Zornotzarra jaiotzez, Gasteizko biztanle azken hamar urteotan. Txikitatik musikak liluratu du Mikel Urdangarin, 35 urteko gizasemea. Zaletasun horrek eta zeozer esateko gogoak gidatuta, eszenatokien konkistari ekitea erabaki zuen halako batean. Ahotsa eta, artean, jotzen ikasten zebilen gitarra ziren beraren armak, ez bakarrik ordea: ilusioa ere bazeukan, eta horren balioa aldarrikatu du elkarriketan zehar bere sorkuntza lanaren motortzat. Bederatzi urte, bakarkako dozena erdi inguru disko, eta auskalo zenbat zuzeneko emanaldi eta gero, ilusio horrek oso-osorik dirauela diosku gainera. Horren fruitu, prestatzen dabilen disko berria. Ez dugu esango noiz kaleratzekoa den, Urdangarinek argi utzi digu-eta presaka ibiltzea ez dela bere estiloa. Lasai lan egitea du atsegin; beraren kantu asko bezain lasai. Gu ez bezalako kritikari adituek hamaika adjektibo jaurti dute bera eta beraren musika deskribatzeko: intimoa, erromantikoa, poeta ere esan ei du inork... Guri, batez ere, elkarriketa amaieran bota digun esaldia gustatu zaigu: “Bere kontuak kontatzen dituen pertsona naiz”. Hona hemen, musika barik oraingoan, kontu horietako batzuk.

Mikel Urdangarin

Ipini musika bizitzari

Testua: **Unai Brea**

—Bertsolari hasi zinen zu, ezta?

—Tira, bertsolari... Bai, hamar urtegaz hasiko nintzen, ikastola garaian. Lopategi ibiltzen zen ikastoletan aurrera eta atzera, eta beragaz hasi nintzen. Gainera, irakasle batek emoten zizkigun bertso zaharrak, eta ikasten hasi nintzen, sorta zaharrak, Txirritaren bertsoak eta... klasiko zaharrak. Gero Lopategigaz hasi eta hor egon nintzen hamarren bat urte, gorabeherakaz, joan-etorriakaz edo sartu-urtenakaz. 24ren bat urte eduki arte-edo izan nintzen behintzat.

—Eta zergatik utzi zenuen bertsolaritza?

—Gogoratzen naiz bertso mundura sartu nintzela bertsoen doinu zaharrek sorginduta eduki nindutelako sasoi hartan guztian, txikitari. Esan liteke musikagatik sartu nintzela bertso mundura, eta gero ere musikagatik urten. Gustura egon arren mundu horretan, eta inoiz ere bertsolari sentitu arren, musikak deitzen

ninduen, kantatu beharrak, neure istorioak kontatu beharrak. 22-23 urtegaz Nerea Zuloaga izeneko neska bategaz hasi nintzen kantatzen, *a capella*, pare bat urtez, jende gitxi daki datu hau. Handik gitxira erabaki nuen bakarrik hastea.

—*A capella* ere bai?

—Ez. Gitarra ikasten hasi nintzen 23 edo 24 urtegaz, eta gitarragaz hasi eta gitxira

aurrean kantatzeko?

—Bueno, nik bizitza osoan kantatu izan dut. Etxean beti egon da kantatzeko joera handia, bazkalosteetan, afalosteetan... Musika, alde horretatik, oso gertu eduki dut. Eta badinotsut ni bertsotan musikagatik sartu nintzela, doinu zaharren xarmagatik, eta asko gozatzen nuen kantatzen. Gero, apurka-apurka, bazoaz har-

“Gogoratzen naiz erdi isilpean hasi nintzela kantuak prestatzen”


grina sartu zitzaidan, nik uste dut aspaldi egosten neukala, kantuak sortzeko, grina eta beharra. Sasoi hartan oso modu sendoan sentitzen nuen behar hori, zeozer sortzeko beharra, zeozer neurea, berria. Eta grina horrek bultzatuta hasi nintzen kantu sortzen eta bakarrik ibiltzen.

—Bertsotan hasi zinenerako bazenekien behar bezain ahots ona zeneukala jende

tzen kontzientzia hori. Txikitari ere esaten zidaten ondo kantatzen nuela, baina badakizu, txikitako kontuak.

—Zelakoak izan ziren zure hastapenak kantari modura?

—Gogoratzen naiz kantuak prestatzen hasi nintzenez, erdi isilpean hasi nintzela. Ez nuen gura berbarik egin ere, ez aipatu, badaezpada; gauza aurrera zihoala



eta gitarragaz ere moldatzen nintzela ikusi arte... Kantuak eduki arte apenas ez nuen komentatu. Nire lehenengo diskoa, *Haitzetan*, autoprodukzioa izan zen, eta koardrilako lagunek ere ez zekiten ezer nitaz. Akordatzen naiz diskoa bota nuela behin, mahai gainean, lagunak musean zebiltzala, eta denak harrিতa gelditu zirela. Zertan dabil mutil hau, zer da hau? Holan agertu nintzen eta esan nuen: aizue, hauxe egin dot. Jendeak ez zuen sinesten, pentsatzen zuten adarra jotzen nenbilela. Atera kontuak zelan egin nuen.

—Gitarraren kontua dela-eta, aspaldi irakurri nuen, zuri egindako elkarrizketa batean, eszenatokian ahotsari laguntzeko zeozeren faltagatik hasi zinela ikasten...

—Bai. Nik ez nuen pentsatuko... Oso txikitik, hamar urtegar, gurasoek gitarra klasiko bat oparitu zidaten, eta ez nion kasurik egin. Arrebak hartu zuen eta bera hasi zen jotzen. Gero, 23-24 urtegar kantatzen hasi nintzela, pentsatu nuen: nik hemen makulu bat behar dut, eta holan hasi nintzen gitarra ikasten. Ezin nintzenez bakarrik atera *a capella* kantatzen, laguntzaile bat behar nuen.

—Hala ere, gauza bat da gitarra ikastea lagun artean, bazkalostean jarduteko, eta beste bat eszenatokira, entzuleen aurrean ateratzeko moduko trebetasuna eskuratzeara...

—Bai, baina ikasten hasi nintzen eta argi neukan zer egin behar nuen. Batez ere, sentitu egiten nuelako kantuak etorriko zirela laster. Ikusten nuen, ikasi ahala, kantuak egiteko joera, nolabait, erraztasunez neukala. Lehenengo akordeak ikasi ahala, esaten nuen: hemendik zeozer aterako da laster. Eta holan izan zen. Gitarra ikasten hasi eta urte eta erdira-edo, baneuzkan kantu berriak, eta handik gitxira lehenengo diskoa atera zen.

—Eta jende aurrean jotzeko prest...

—Hara, nahiko lotsabakoak izan gara beti, bestela ezin liteke uler horra atera izana. Lar pentsatu barik atera nintzen, gogoak eraginda, eta esaten: hau egin behar dut

eta kitto. Orain ere ez naiz ni gitarra jotzailea, baina tira, gitarragaz konposatzeko eta laguntzeko moldatzen naiz. Korsziente nintzen, hasieran ere, ez nintzela gitarra jotzaile ona, baina nahikoa zen hori neurea egiteko.

—Zeozer hobetuko zinen...

—Bai, ni orain oso eroso nago, topatu dut neure modua. Jendeak, lagunek-eta, esaten didate nahiko modu kuriosoan jotzen dodala, noski, bizio askodun jotzeko era

“Ez naiz gitarra jotzailea, baina topatu dut neure jotzeko modua”

da, baina azkenean hor lortu dut neure adierazteko modua. Neurea da, eta seguruenik badauzkat bizio txar asko, baina bizio txar horietan eroso nabil. Eta topa dut komunikatzeko modua. Azken batean, hori da inportantea: komunikatzea, esatea... beste gazua askoren gainetik, teknika eta abarren gainetik.

—Aurretik musika-heziketarik jasotakoa zara?

—Txikitik solfeo ikasi nuen, ume asko legez, bost urte egongo nintzen. Eta seguruenik lagundu egin nau, baina gero ez nuen segitu, eta beharbada egin izan banu orain eskertuko nuen, sekula ez datorrelako txarto hori. Baina holan izan da. Orain, heziketa beste era batekoa da, ezta?

“Azkeneko hiru urteotan oso gustura egon naiz taula gainean”

Zeure kabuz saiatzen zara ikasten, eta badagoz ikasteko eta hobetzeko moduak kontserbatoriora sartu barik.

—Lehen esan duzu zeozer sortzeko grina itzela zeneukala, hasi zinenean. Orain ez hainbestekoa?

—Hori ez da sekula moteldu, sentsazio hori handituz doa. Azkeneko urteetan, batez ere azkeneko hiru urteetan, oso gustura nago taula gainean. Kantuarekiko

harremana, musika zelan bizi dudana... sekula sentitu ez dudana moduan sentitzen dut orain guztia: musika, kantua sortzea, zuzenekoak... Gogoia bizi-bizi dago, eta horixe da inportanteena gainera.

—Azken diskoa noiz atera duzu?

—Orain urte bi, 2005ean. Bueno, urte eta erdi, urrian atera nuen.

—Kaleratu dituzu batzuk dagoeneko. Eta gerta daiteke, urte bi igarota, “hau non dabil?” itauntzea jendeak. Ez dakit

sentsazio hori daukazu...

—Hara, urte bi hauetan, lanpetuago edo libreago, hor egon gara diskoa aurkezten. Azken hilabeteotan diskoa ahaztu eta zuzenekoak egiten gabilta modu libreago batean, baina horretan.

—Disko berririk gogoan?

—Badaukat. Orain kantu berriak prestatzen nago, jomuga zehatz barik, baina hasi gara lanean kantu berriakaz, eta ea apurka-purka aurkezten goazen zuzenekoetan, ezagutarazten. Disko berria presa handi barik egin gura nuke, kantuak on-tzen joan eta... Baina horretan nabil, diesel motorra jarrita eta lehenengo martxan, abiadura handi barik baina dagoeneko horretan jo eta fuego.

—Lehenengo martxa, hain zuzen, mal-dan gora ibiltzeko da oso egokia. Hala ibiltzen zara disko berri batez erditzeko?

—Batuetan bai, kar, kar... Ez, ez da hain gatxa, estudioan sartu eta gero. Estudioa bunker antzeko bat da eta badauzka alde onak eta txarrak. Bietakoak bizi izan ditut, egin ditudan diskoetan.

—Esan gura dut: erraz datozkizu kantuak burura?

—Sasoiak ere badira. Hurrengo diskoko kantuak azken urte bietan sortutako kantuak izango dira. Ez sasoi jakin batean, baizik eta urte bitan zehar egindakoak, ondutakoak... Gustatzen zait denbora luze batean etxean edukitea kantua, eta gero azaleratu, erakutsi.

—Ez duzu orduan presiorik igartzen, diskoa atera behar duzula zelan edo halkan, lehenbailehen? Disketxearen presioa, jendearena, zeure buruarena, edo hirurena batera...

—Izan liteke. Dena den, jardunean ibili naiz. Bederatzi urtean sei disko izan dira bakarka, eta *Zaharregia, txikiegia agian* kolaborazioan nago, eta beste lan batzuetan... Ekinean egon naiz, eta egia esan arnasa handirik ere ez diot emon jende-ari. Nik neure erritmoan egin dut beti, sentitu dudanaren arabera eta beste ezertan pentsatu barik. Barruko senak agin-

tzen du: beharra duzu kantu bat egiteko, eta egin egiten duzu. Baina saiatzen naiz gero eta gehiago presio horietatik askatzen. Askotan norberak sortzen dio presiorik handiena bere buruari. Saiatzen naiz askatzen, eta gauzak gustura egiten, gozatuz, gero eta presa gitxiagotuz. Eta atzeratu egin behar bada proiektu bat, atzeratu. Ez bortxatu. Presa ez da ona. —Zer esan gura duzu zure kantuetan? —Ez dakit, merezi duen edozer gauza. Edo niretzat merezi duena. Zer izan daiteke? Edozer. Afari bat, lagun baten gutuna jasotzea, okinagaz berba egitea... Bere kontuak kontatzen duen pertsona naiz, eta niretzat hor dago balioa.

—Zure berbek, izan ere, oso barrutik ateratakoak ematen dute. Disketxeako web orriak dio intimoak direla zure kantuak...

—Askotan badira. Saiatzen naiz oso hur-

iletik idazten. Eta saiatzen naiz, kontatzen dudana bezala, ezkututzen. Kontatu barik utzi behar da asko, eta norberak bete dezala gero hutsunea. Ez zait gustatzen kantua hasi eta amaitu, erabat itxita. Askok gustatzen zait aditzera emotea, flashakaz, argazkiakaz... kantuak osatzea. Ez naiz oso narratiboa izaten, hasi eta amaitu. Inoiz bai, baina normalean zera naiz, ez dakit nola esan...

—Telegramazalea?

—Inoiz bai, eta askotan irudien bitartez osatzen dut kantua, irudi bati beste bat gehitu, eta beste horri beste bat, eta bospasei irudigaz kantua osatu. Argazki album bat legez. Askotan erabili dut esamolde hori, album legez bizi izan dudala kantu bat, irudi desberdinakaz istorioa osatu, eta disko osoa ere bai. ○

HAU EZ DA PROMOTIOA



CANAL+
19'95 €/hilabetean

HAU BAI



Soilik orain 3 hilabetez
CANAL+
DOAN

abonatu zaituz ERDIAN
Goienkale 5, Plentzia. Telf.: 94 677 03 36



Promoción válida del 15/04/07 al 31/03/07 para nuevos abonados a DIGITAL+ en provincias concertadas. Coste de inscripción al 15€ (precio reglado: 90,15€) impuestos indirectos incluidos. Oferta contentiva e instalación básica (20m. de cable, 1 línea de tv y dos conectores). Promoción no acumulable y condicionada al mantenimiento del contrato durante 18 meses y la renovación del mismo. Abonados que cesasen bajo cualquier condición deberán abonar 100€ en concepto de antepago e instalación básica. Regulado de acuerdo con el apartado de MTC en PV por periodo hasta el día 04/07. Regulado de tres meses (mensualidad de 30€) y 2 segundos del paquete CANAL+, el elige otro superior se elevará al precio de CANAL+ 19,95€. Consultar condiciones en promoción y listas en www.plus.es/actualizaciones

Sólo en
DIGITAL+



Areeta 1937

Gernika eta Durangoko bonbardaketak danon ahotan ibili dira azken bolada honetan. Horren harira gure eskualdean -Areetan hartuak dira argazki guztiak- gerrak utzitako arrastoen berri eman nahi izan dugu. Areetako Mesedeetako Amaren eliza (argazki hau) eta Antolin Hotela leherrarazi zituzten anarkistek, eta Errepublikaren aldeko ingeniariak gauza bera egin zuten Bizkaiko Zubiarekin frankisten aurreratzea oztopatzeko. Horiexek ikus ditzakezue orrialdeotan.

Argazkiak: **Getxoko Udal Liburutegi**







BIŽAKO ZUBA, 1937KO EKANA

zineeskola

Oskar Fernandez

Santxo III eta Ridley Scott

Ondo dakigunez, euskal jendeak Santxo III. errege nafarrarekin ezagutu zuen ospe eta distira; zoritxarrez, ez da berriro inondik inora ezagutu. Garai hartan, hamaikagarren mendearen hasieran, Nafarroako Erresuma bere garapenaren gailurrean zegoen. Handitasun horrek, gorabeherekin jakina, zazpi mende luze eta oparo iraun zituen. Europa osoan zehar Nafarroako Erresuma ospetsua zen. Aipatutako mendearen hasieran, XI. hasieran alegia, Santxo III. handienak bere ekialdeko eremua babesteko gaztelu sendoa, handia eta ikusgarria eraikitzea agindu zuen. Loarre Mendikatean, Europako teknikaririk hobereenak lan egin zuten eraikuntza militarra eraikitzeko, horrelaxe sortu zen Loarre Gaztelua, gaur egun garai hartako eraikuntzarik hoberenarikoa dena. XX. mendean gazteluak berrikuntza orokorra izan zuen eta gaur egun bere xarma interesgarria eskaintzen du. Jakaren hegoaldean kokaturik dago; ez oso urrun. Mila urte pasatu ondoren Santxo III.aren gaztelu ospetsua hamaika pantailatan agertu da Ridley Scotten zuzendariari esker. Zuzendari ospetsu eta ezagun horrek – Alien, zortzigarren bidaiaria, Blade Runner, Black Rain, Thelma eta Louise, Gladiator, eta abarren egileak –, duela bi urte, 2005ean, Zeruen Erresuma zuzendu zuen. Film epikoa da, XII. mendean kokaturik, gurutzadetakoko garaikoa. Istoriolan ahalik eta errealismo gehien islatzeko filmeko ekizileek hainbat eszena girotzeko Loarre Gaztelua aukeratu zuten. Lehenengo urratsa emanda dago, ea norbait animatzen den Euskal Herriaren milaka urteko historia hunkigarria eta erakargarria irudien bidez adieraztera!

Erandioko lehiaketa

IV. Film Laburren Zinemaldia maiatzaren 7tik 12ra egingo da Josu Muruetan

Lehiaketara lanak aurkezteko epea amaitu baino egun batzuk lehenago 66 hautagai zituzten Erandioko Film Laburren Zinemaldiko antolatzaileek. Lanen aukeraketa egin ostean, hautatutakoak maiatzaren 7tik 12ra bitartean Josu Muruetan egingo den zinemaldian eman-gotuzte (19:30). Azken egunean bertan jakinaraziko du epaimahaia zein izan den aurtengo Umorezko film laburrik onena (2.000 euro), Dokumental laburrik onena (2.000 euro), Ikus-entzunezko eskolen film laburrik onena (1.200 euro) eta Ikus-entzuleen arabera aipamen berezia merezi duen lana (500 euro).

Laugarren urtea beteko du aurtengo ikus-entzunezkoen sektorea eta egile amateurrek bultzatzea helburu duen Eran-

«Dagoeneko lehiaketan parte hartzeko 66 lan jaso dituzte antolatzaileek»

dioko zinemaldiak eta Udaleko Kultura zinegotzi Julio Puertas harro dago egindako bidez: “Erandioko Ategorri-Tartanga institutuko Irudi eta Soinu zentroari bultzada emateko asmoz antolatu genuen ekimena, zinemaldiaren helburua nik hor ikusten dut, gazteei ikasketak amaitzean




Ikusiko diren lan guztiak iaz egindakoak dira

zelanbait aukera bat eskaintzeko; lehenengo urtean jaialdi izaera izan zuen baina txiki lotu zela uste genuen eta hurrengo urtean hori berori baina eskolak gonbidatuz egitea erabaki genuen, saritxo bat banatuz... Iaz eta aurtengo lanak gai baten gainean egitea zehaztu dugu, aurtengo dokumentalak barbarako “etxebizitza eta gazteak” gaiaren ingurukoak izango dira. Partehartzaileak gero eta gehiago dira, lekutxo hartzen gabiltza esparru honetan. Halere, aukera hau aprobetxatu gura dut lau urte hauetan hau antolatzen jardun eta lagundu diguten guztiei eskerrak emateko”. ○

Ez galdu > American dreamz

• Non: Getxo Antzokia • Noiz: maiatzaren 9a, eguaztena • Ordua: 19:30 • Zine Kluba



Pelikula honen zuzendaria eta gidoilaria New Yorken jaiotako Paul Weitz da. Zineman lizentziatua, ikasketen azken urtean berak idatzitako antzerki lan bat *Off-Broadway*-n estreinatu zen. Artisten giroan murgildurik egon da beti: bere aitite zinema-agente oso garrantzitsua izan zen, bere aita diseinatzailea eta idazlea, ama aktorea. Gainera, bere anaiarekin batera 1999an produkzio enpresa sortu zuen Weitzek.

American dreamz bere bigarren film luzea da eta telebistako lehiaketek pertsonengan daukaten eragina kontatzen du. Oso aktore ezagunak baliatu ditu zuzendariak, besteak beste, Hugh Grant (protagonista), Dennis Quaid eta Willem Dafoe. Lan honekin telebistaren eta gizakiaren azterketa interesgarria egiten du.

Guns'n'cloners, tributu-banda

Guns'n'Roses itzal handiko talde amerikarraren “zordunek” 4 kontzertu eman dituzte daborduko



Guns'n'Clonerseko taldekideak. Harremanetarako: sancolumba@hotmail.com

Orain dela 2 urte eta erdi inguru Udondo aldean landatu zuten Guns'n'Cloners taldearen hazia Iñigok (bateria), Albertok (baxua) eta Gorkak (gitarra); ostean Asier (gitarra) eta “Pikaro” (teklatua) hurreratu zitzaizkien. Alabaina, 80. hamarkada amaieran eta 90. hamarkada hasierako talde entzutetsu eta lori handiko Guns'n'Roses-en zordun edo “tributuzko banda” den taldeari Axl Rosen ahots-kordei eusteko gai den abeslaria falta zitzaion, eta iazko urrian berotu zuen sama lehenengoz Jonek. Orduetik 4 kontzertu eman dituzte, “jendeak gogotsu hartu du taldea, badirudi tributuzko bandak berriro modan daudela, baina lasai hartu gura dugu”, azaldu du

Asierrek; azken finean, Los Angeleseko taldearen “urrezko garaiko” kanten bertsioak jotzen dituzte eta ez dituzte zaleak nekatu gura. Astrabudua, Erromo eta Leioako musikariek osaturiko Guns'n'Clonerseko taldekideak rock gogorreko talde amerikarreko kideak legez “itxuraldatzen” dira zuzenekoetan. Zuzeneko emanaldiak dira euren giltza eta dagoeneko bertsio berriak entsaizten dihardute. Ziurrenik Astrabuduko, Erandioko edota Leioako jaietan eurekatz gozatzeko aukera edukiko dugula aurreratu du Asierrek, “hori bai, abaztu Axlen gehiegikeriak eta xeblekeriak, bere azken kontzertuak etsigarriak dira; guk sasoi onetako Guns'n'Roses dugu jomuga”. ○

diskoak

Antidiotico
Orishas
EMI/Capitol



Orain arte egindako abesti arrakastasuez gain, kaleratu ez dituzten hiru kantu bilduko ditu Orishas talde kubatar entzutetsuak Antidiotico lan berrian. Hain zuzen ere, Silencio, Una página doblada eta Hay un son dira kantu berrien izenburuak. Gainera, remixak edukiko dituen bertsio berezia kaleratuko dute, hala nola DVD bat taldeak egindako bideoklipakaz.

Barikun
The Uski's
Oihuka



The Uski's taldearen bigarren diskoaren izenburua da *Barikun* eta taldearen rock and rollerako joera areagotu egin da. Gitarrek distorsio puntu handiagoa dute, apur bat gogorragoak dira, baina beti 60 eta 70 hamarkadetakoa Amerikako soinuaren oinarriturik: rock and rolla, r&b, blues, rockabilly, soul ... Horren guztiaren emaitza dantzarako eta jairako diskoa da.

Bidea egimez
Etxea
Oihuka



Popa eta rocka ederto nahasten dituen musikari gaztea da Etxea. Bizitasun eta indar handiko abestiak ukitu intimoagoa daukaten kantuak nahasten ditu Berrizko kantugileak, baina, power-popa nagusitzen dela esan daiteke. Musikariak 2005ean kaleratu zuen sei abestiko maketak izugarriko interesa piztu zuen komunikabideetan.

diskoa >

Itxartu abesbatza

Getxoko Itxartu abesbatza sortu zenetik 10 urte pasa dira eta urteurren borobila ospatzeko asmoagaz abesbatzakoek disko bat grabatu dute. 35 lagunez osatutako abeslari taldeak hainbat musika estiloko 13 kantu aukeratu ditu lehenengo disko honetarako, barbarako doinu klasikoek, polifoniek, gabon-kantek eta euskal abestiek osatzen dute Urdulizko Tio Pepe estudioetan grabatu duten lana. Egitasmoa aurrera eramateko Getxoko Udaren diru-laguntza jaso dute, erdia finantzatu du Udalak, beste erdia elkarteak berak ordaindu du. Hala, Itxartu abesbatzaren 10. urteurrena ospatzeko kaleratu duten diskoa 10 eurotan dago salgai Algortako Batzokian.

NUN >

Bilbao Live jaialdian

2002an taldea sortu zenetik egin du bere bidea NUN talde getxoztarrak. Iaz argitaratu zuten *Collage* diskoa eta herri askotako plazek eta aterpeek gozatu dituzte euren zuzenekoak. Ekainaren 28an Kobetamendin egingo den Bilbao BBK Live jaialdi erraldoian emango dute kontzertua izen handiko talde entzutetsuak batera: Fito & Fitipaldis, Los Ronaldos, Muchachito Bombo Infierno, Pinktones... Lau eguneko jaialdiak 2. urtea du aurtengoa eta badirudi oraingoan euskal taldeei leku gehiago egin dietela egitarauan.

www.nunsarean.com / www.bilbaobklive.com

etorri
eta
ikusii!!

LIBURUDENDA

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak

Odola emateko egunak
ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako Metro Plaza
maiatzak 7

Erromo-Areetako kultur etxea
maiatzak 17

Zatoz odola ematera,
ez itxaron!

Informazioa: 900 303 404



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

Markak. Gernika 1937

Bernardo Atxagak bere someneko testuakaz eta garaiko lekukotzakaz ondu du liburua

Orain dela ez asko 7ka astekariak Joseba Sarrionandiaren (Iurreta, 1958) berben bidez Durangoko zein Otxandioko bonbardaketa eta suntsipena ekarri zituen gogora. Ostein ETB kateak ere saio berezia eskaini zion gaiari. Izan ere, oraintsu bete dira 70 urte Francoren aginduetara alemaniar eta italiar gerra-hegazkinek euskal herri eta herritar asko erasotu eta kiskali zituztenetik; orduko apiril hartan Gernikan azoka eguna zen... Aitite-amanen ezpainetako soinuei belarriak zabalduz gero, denek hegazkin hiltzaile haien burrunbaren onomatopeia beldurgarri berbera errepikatzen dutela antzeman daiteke, eta oraindik ere haien begietako

«1937an bonbardaketa salatzeko argitaratutako faksimila ere bildu dute»


oroitzapenek gaurko gazteen bihotza ukabil batean sartzeko gaitasuna dute. Urteurrenaren harira hamaika ekialdi antolatatu dituzte: Picassoren margoaren collage bat egitea, Reina Sofia museotik ekarritako zirriborroen erakusketa... Horien artean aipatzekoa da orain urtebete euskaltzain izendatutako Bernardo Atxaga idazleak aurkeztu duen *Markak. Gernika 1937* (Pamiela) liburua. Bonbardaketaren griz-



Bernardo Atxaga (Joseba Irazu. Asteasu, 1951)

pean, marka edo arrastoei jarraitzen die Atxagak Milanetik, Kaliforniara, Nevadara; markadun harrietatik euskal artzainen aztarnetara, gizakiak bizi izanaren ostean uzten duen zantzetan gogoeta eginez, Picassoren margoaren lorratzak galdu barik. Halere, liburuaren zati bat baino ez da hori, bestean Cernuda, Lauaxeta eta Cesar Vallejo poeten testuak, lekukotza historikoak eta oraintsu aurkitutako bonbardaketa salatzeko 1937ko Euzko Jaurlaritzak plazaratutako faksimila ere bildu ditu. Testu horiek Asun Garikanok euskaratu ditu. Bestalde, beste 2 liburu idazten diharduela iragarri du Atxagak, bata poesia alorrekoa izango da; bestea, narratibakoa. ○

liburuak



Verdi
Itziar Gillenea
Elkar

Risorgimento mugimenduari lotu izan da Verdi, baina eztabaidagarria da bere musika inoren zerbitzuan jarri nahi izatea. Halere, ezin uka daiteke bere obraren harrera Italiak bizi izan zuen egoera politikoari loturik joan zela.



Katalinarenak
Amélie Nothomb
Igel

Bakardadean bizitzea da Émile eta Juliette senar-emazteen ametsa. Horretarako, etxea erositako dute basoaren barruan. Alabaina, egoera hori apurtuko duen aukerak bat edukiko dute: Palamède Bernardin. Arratsaldero euren etxean sartuko da.

[kirola]

Udaldira begirako kirol eskaintza Getxon

Getxo Kirolak-en ikastaroetan parte hartzeko txartela hilaren 16a baino lehen hartu behar da



Igeri egiten ikasten ere irakatsiko da

Urtero legez Getxo Kirolak erakundeak Udako kirol Ikastaroen programa aurkeztu berri du, izan ere gazteei zuzendutako kirol jarduerak horietan izena emateko epea maiatzaren 21ean zabalduko delako. Halere, izena eman baino lehenago parte hartzeko asmoa dutenek txartel bat eskuratu behar dute Fadura edo Gobela kiroldegietan maiatzaren 16a baino lehen; hilaren 17an zozketa egingo delako (10:00etan, Faduran eta Gobelan) eta irteten den zenbakiaren arabera, hortik hasiko dira zenbatzen ikastaroetarako partehartzaileak. Beraz, zozketak erabakiko duen zenbakitik are hurbilago egon zure zenbakia, aukera handiago daukazu nahi duzun ikastaroa hautatzeko eta bertan parte hartzeko. Izan ere, Getxo Kirolak ikastarootako partaide kopurua 800 lagunetan mugatu du aurten. Alabaina, Igeriketa Hobekuntza eta Egokitasun ikastarorako zozketa ekainaren 18an egingo dute. Halere, udal arduradunek jakitera eman duteenez talde guztietarako itxaron zerrendak zabalduko dituzte.

Eskainiko dituzten ikastaroen artean daude,

berbarako: tenisa, padela, igeriketa, futboleko kanpua, abentura kirolak, *Udan ondo pasa* eta *Jolasean* jarduerak.

Jarduerok uztailean Gobela eta Fadura kiroldegietan emango dituzte, eta abuztuaren 1ean. Ostera, *Udan ondo pasa* eta *Jolasean* e-

«Faduran, uztailean eta abuztuaren emango dira ikastarook; Gobelan, uztailean baino ez»

menek abuztuaren 16an dute hasiera eguna. Ikastaro guztiak asteleheneretik barikura eskainiko dira (jaiegunak salbu).

Bestalde, Udalak Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat eta DBHko lehenengo zikloentzat antolatzen duen Udako Programan parte hartu gura duenak ekainaren 18tik uztailearen 6ra bitartera edukiko du zabalduz gero izena emateko epea. ○

Informazio gehiago:
94 430 80 70 edo Bazkideen Bulegoan

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA KIROL MODA



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXeko ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris S.L. SERVICIO

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

94 430 52 00 Kasune, 18 - ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Ibon Rodriguez > Nemonica komunikazio agentzia

“Publizitatean irudimenak laguntzen du, baina teknika da garrantzitsuena”



Getxon proiektuak burutzea gogoko du Ibon Rodriguezek

Getxoko Udalgaz hainbat proiektu burutu dituen publizitate eta komunikazio agentzia da Nemonica. Bertako koordinatzailea den Ibon Rodriguez getxoztarragaz egon gara, gure bizitzan berebiziko bihurtu den publizitatearen munduan zertxobait arakatzeko asmoz. Ibon burutzen duen lanagaz pozik dagoela ematen du, hori da behintzat beragaz edukitako elkarrizketatik ondorioztatu duguna.

—Zer da Nemonica?

—Orain sei bat urte sortu genuen Nemonica. Hasieran Interneteko ataria izan zen, baina bilakaera baten ondorioz publizitate agentzia bihurtu zen. Orduan zortzi lagun ginen, gaur berriz, 25. Publizitatea, komunikazioa eta Internet lantzen dugu orain.

—Zelan sartu zinen mundu honetan?

—Nik beste publizitate agentzia batean egiten nuen behar. Atari berria martxan jarriko zutela-eta, arduradun komertzial moduan jarduteko deitu zidaten. Garai hartan interaktiboan eztanda zegoen eta guk diseinatzailer zela sortzaileak egiten genuen behar.

Gutxinaka-gutxinaka bezeroak lortuz joan ginen, hasierako urteak gogorrak izan baziren ere.

—Bulegoa Bilbon dago. Zerk lotzen zaitue Getxogaz?

—Garai batean Getxogaz hasi ginen lanean, batetik ni bertokoa naizelako eta bestetik jendea ezagutzen dudalako. Izan ere, herria ezagutzen gero errazagoa da gauzak egitea. Horrez gain, nire herrirako gauzak egitea gustatzen zait: Euskara Zerbitzua, Udala, Bizarra Lepoan elkarte... Denboragaz enpresa handituz joan da eta orain beste gauza batzuk ere egiten ditugu. Egia da lehen gauza

gehiago egiten genituela Getxon, baina oraindik proiektu nahikotxu erosten ditugu aurrera.

—Zer egiten duzue Nemonican?

—Batetik, publizitate arrunta eta, bestetik, komunikazioa eta web orriak. Euskal Herrian publizitatea diseinuz nahastu izan da askotan, eta guk ere diseinua lantzen dugu. Egin, denetarik egiten dugu, baina gu bezeroagaz erosen gaudenean hornitzaileak baino laguntzaileak garenean da. Bezeroari zerbitzu osoa eskaintzen diogu, irtenbide guztiak eman.

—Hain garrantzitsua da irudia gizarte garrantzidean?

«Gauzak ez dira politak ala motzak, eraginkorrak baizik»


—Bai, gure kasuan behintzat itxura oso garrantzitsua da. Irudiaren bitartez gauza asko lor dezakezu eta guk horretan egiten dugu lan. Ez bagara gu eredia, bezeroak zer nolako konfiantza edukiko du gudan? Enpresek era kontrolatu batean irten behar dute kalera. Ez dut esango era polita batean, “polita” eta “motza” berbak ez ditut-eta gogoko. Gauzak ez dira politak ala motzak, eraginkorrak baizik.

—Irudimena beharrezkoa da honetan jarduteko?

—Teknika ere beharrezkoa da. Irudimenak laguntzen du, baina teknika da garrantzitsuena. Asko irakurri behar duzu eta zure alboan gertatzen denaz jabetu: zure auzokoa zelan pentsatzen duen, beheko tabernakoa zelan jantzen den, zure herriko kaleetan zer gertatzen den... Jendearengan eragina lortu behar dugu honetan gabilzanok, beraz, prestakuntza eta teknika beharrezkoak dira. ○

Testuak eta irudia: Xabi Bilbao

Esakere > “Asto batek baiño bik gehiago dakie”



Euskaldunek badakigu batzuten gauza ederrak sortuten eta pentsaten: pinturek, bertok, esakerak... Hori holan da, baia zeozetan lehelengok edo lehelengotarikok bagara yateko kontuten da: ugeri dire gure arten 'sake onekok', eta norbera yature ez bada, edo, ondiño txarrago, mizinkeriten badabil, ez dau berba onik entzungo lagunetatik eta etxekon agotik. Eta zer da akabu euskaldun batentzako? Ba norberak yan ez eta beste nonok norbera yate: Tartalo ta Gargantua, horretxek direz gure espantuk!

Esakera hau R.M. Azkuek baturiko da, eta beran “Euskalerriaren Yakintza” behar handin topako dozue.

Gure **berbakere** 95

Berba jator batzuk (XXIII)

Gaurko Berbakere honetan aditz batzuk ikusiko doguz, gure ingurutik kanpora bere, beste euskera askotan, eta sarri batuan erabiltzen direzenak, baia gure euskeran, ahoskera aldetik, apur bet diferentek direzenak (eta batzuk, txerak iñ eta sokorru iñ lez, gure ingirun bakarrik erabiltzen direzenak). Hemen doaz batzuk.

- **usi:** batuaz *hautsi* (barau ausi: *baraua hautsi, gosaldu*).
- **baltzitu, hutzitu eta hotzitu:** batuaz *belztu, hustu eta hoztu*.
- **ebagi, eskegi:** batuaz *ebaki, eseki*.
- **iñ eta eon, on:** batuaz *egin eta egon*. Bokalen arteko 'g' galdu egiten da aditz honetan biotan, baia beste aditz batzukez ez da pasaten hori: *igiri, eskegi*,... Ixen leite *egin* eta *egon* beste aditzek baiño sarriago erabiltzen direzelako, eta askotan aginduk emoteko edo espresio handiko esakeratan.
- **emon, eron, itxedon, erontzi:** batuaz *eman, eraman, itxaron, erantzi*.
- **eraklatzi, erakutzi, irebazi, iruntzi:** batuaz *iraklatzi, erakutzi, irabazi, irentsi*.
- **erein:** batuaz *eragin* (adibide: '*yan érein iñ dotzo*').
- **esetu, iribiotu:** batuaz *ezagutu, irabiatu*.
- **gaitu** edo **geitu:** batuaz *deitu*.

- **igiri, ikisi, imiñi, iriki:** batuaz *ireki, ikasi, ipiñi, irakin*.
- **ikutu** edo **ukutu, itxun:** batuaz *ukitu, etzan*.
- **ixi, ixen, ixertu:** batuaz *itxi, izan, itxartu*.
- **iyen, iyerri:** batuaz *igo, igarri*.
- **iyoy:** batuaz *eho*.
- **kiskeldu, pillotu:** batuaz *kiskali, pilatu*.
- **opetzi** edo **opetzu:** batuaz *eskaini*.
- **siketu, siñestu:** batuaz *sikatu, sinetsi*.
- **siñuk iñ:** batuaz *keinuak egin*.
- **txarrapaka iñ:** batuaz *harrapaka egin*.
- **uger iñ:** batuaz *igeri egin*.
- **sokorru iñ:** batuaz *oihu egin*.
- **txerak iñ:** batuaz *laztan egin*.
- **txikertu, tximurtu:** batuaz *zatitu, txikitu, zimurtu*.
- **yabon:** batuaz *yagon, zaindu*.
- **yarri:** batuaz *jarri, eseri*.

Honek aditzek ikisi eta polito egingo dogu berba!

I
Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45
Telletxe 1 T: 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GARRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

KOMIKIGINTZA HIZKERA INFORMALA KARIKATURA

BERBALDIA

ASISKO
URMENETA



2007KO MAIATZAREN 17AN

JOSU MURUETA KULTUR ETXEAN (ASTRABUDUA)

11:30ean Aretxo nagusian / 20:00etan Gela urdinean



ERANDIO ELIZATEKO UDALA
EUSKERRA FERBITZOR



[norajoan]

Artaza etxea

Kalitatea prezio onean Leioan



Agustin, Jon eta Veronica

Leioako Ostalaritza Eskolan ikasi zuen Agustin Bovedak. Lanordu luzeak, domeketan behar-egotea... bizimodu gogor horretaz nazkatu-rik Artaza eraikinean jatetxea zabaltzea erabaki zuen. Beste bi lagunekin hitz egin eta otsailan ireki zuten: "Astelehenetik ostimilena zabaltzen dugu soilik eta hemen lan egiten dugumontzat oso ondo dago hori". Asteburuetan enkarguz zabaltzen dute, nahi izanez gero.

Kalitatea da Artaza Etxearen premisa nagusia. Inguruko bulegoetako eta eraikuntzako langileei egokitutako menuak dituzte. Betiko janari tradizionalaren alde egiten dute, hori da-eta jendeak eskatzen duena: "Janari modernoaren modak indarra galdu du. Guk kalitate oneko betiko produktuak nahiago ditugu". Astelehenetik ostegunera, arrain freskoa edo txuletoia jateko aukera dago ardo gozo batekin

lagunduta. Presaka dabilzantentzat, aldiz, plater konbinatuak eta entsaladak dituzte: "Ni Astrabudukoaa naiz eta jatetxe on baten falta ikusten nuen eskualde honetan. Hori da guk lortu nahi duguna, Leioan erreferentzia biltuztea". Barikutako menua berezia da, babarrunak: "Asteburua dator eta hori ospatzeko modu bat izan daiteke".

Horrez gain, ordu erdi batez lana alde batera utzi eta gozari on batekin disfrutatze-ko aukera ere badago. Pintxo aukera zabala dute eta, nola ez, hainbat motatako patata tortilak ez dira falta: "Gauza landuagoak egin ditugunean ez dute amakastarik izan, bezeroek gehien eskatzen dutena tortilla eta urdaiazpiko ogiarte-koak dira, horretan ezin duzu huts egin".

Landabari pasealekua, 1
Tel.: 94 463 03 92

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobbarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

G gOZOLABEA

galdaretxe

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25
AREETA

Asador Goiezi



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak nomberaren gustura
 - Egunero karta berezia
 - Gaez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
 - Jaun hartze bazkariak zure gustura prestatzen ditugu.

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROI PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

aldizkaria etxean jaso nahi baduzu



uk@aldizkaria.biz
94 491 13 37

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 - urtarrilak 19)
Osasuna eta dirua zeure alde dituzu, baina ez, ordea, lagunak. Badakizu zure umorea eguraldia bezain aldakorra dela, eta liskar bat baino gehiago izan dezakezu umorearen kontura.

OTSOA



(Urtarrilak 20 - otsailak 18)
Azken boladan triste eta goibel zabilzta. Baina aspaldian ikusi ez duzun lagun baten bisitak asko pozutuko zaitu. Berarekin ahaztuta dituzun tokiak eta pertsonak berrikusteko aukera izango duzu.

ADARRA



(Otsailak 19 - martxoak 20)
Azkenaldian bikotekideagaz denbora asko igarotzen duzu, eta hori oso ondo dago, baina lagunak ez ahaztu. Beharrezan zabalduzanean kontu handiagoa izan beharko zenuke, gero ezusteko txarrik izan ez dezazun.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Urrun daukazun familiako kideagaz askotan gogoratzen zara. Zergatik ez diozu noizean behin idazten? Ondo etorriko zaizu, eta berak biziki eskertuko dizu. Mendira joaten zaren bakoitzean, berehala nekatzen zara; sarrago joaten hasi beharko zenuke.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Arzoei behar baino garrantzi handiagoa ematen badiezu, azkenean zoratu egingo zara. Gaur egungo teknologia berriak ez zara oso ondo moldatzen; baina lasai, denboragaz eta pazientziagaz dena ikasten da.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Batzuetan hobe da isiltzea eta arrazoiak besteei ematea, baina zuk ez dakizu ez bata, ez bestea egiten. Aterki txiki horregaz ez duzu lortuko euriak babestea, eta blai eginda lotuko zara.

GARIA



(Ekainak 19 - uztailak 18)
Aspertuta zaudela askotan esaten duzu, baina egoera hori konpontzeko ez duzu ezer egiten. Denetan azkarrena zarela sarri erakutsi duzu, baina azkarrena izateak ez du esan gura adimentsuena izatea.

LASTOA



(Uztailak 19 - abuztuak 17)
Buruko minaz bazabiltza, eta lasaiago geratu gura baduzu, medikuarengana joan beharko zenuke. Autoa zer moduz dabil, Garia? Lantzean behin, zelan dabilen ikusteko, azterketa sakon eta orokorra egin behar zaiola gogoratu.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Edukitzen dituzun gastuak gutxitu egin behar dituzula? Parranda gutxiago egin, eta ederto gutxituko zaizkizu. Amets ugari egiten dituzu gauetan, baina goizean, esnatzerakoan, egunerokotasuna nagusitzen da.

META



(Irailak 17 - urriak 16)
Baina zertan ibili zara daukazun itxura xelege horrekin? Ez zarela gogoratzen? Orduan primeran pasatuko zenuen, ziur. Behin eta berriro egiten duzu gauza bera: besteen lepotik barre egin, eta zeure burua babestu.

HAZIA



(Urriak 17 - azaroak 15)
Inoiz baino indartsuago zaudete. Zeure buruarekiko erakusten duzun konfiantza horrek asko lagunduko zaitu, batez ere zure familian egon daitezkeen gorabehera ezberdinei begira. Izan ere, zeu izango zara oinarritzko euskarrietako bat.

NEGUA




(Azaroak 16 - abenduak 20)
Bizitza profesionalan izugarritzko aurrerapausoa emango duzu eta horrek egonkortasuna sortuko du zeure inguruan. Txikitako beldurrak barru barruan dituzu oraindik. Ordua da horiek gainditu eta zeure benetako izaera garatzen hasteko.

mungia
OKINdegia

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.


KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA

denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Maileguan utzia. 2. Gipuzkoako herria. Kontsonantea. 3. Lepoko. Musika nota. 4. Etorri aditzaren erroa. Betileen edergailu. 5. Gai-sorta. Joan zaitez. 6. Suzko gas masa argitsuak. Alfabetatzerako erakundea. 7. Aluminioaren ikurra. Orioko. 8. Katalanez, deus ez. Santu. Bostehun. 9. Kantari katalana, Xativan sortua. Ore jangarri. 10. Iparretarrak. Dago. Eguzkia.

Goitik behera

1. Ahalmen miragariak dituen alegiazko emakume. 2. Ardo edaleak. 3. Irurako. Musika nota. 4. Behar, egiteko. Guzti. Milia eta bostehun. 5. Eseri aditzaren oina. Alkohol edaria. 6. Hari, gaitzen. 7. Gai bakun baten zatiki. Zintzo. Bokala. 8. Infusio mota. Laztanak. 9. Uranioaren ikurra. Zingira eta paduretako belar-landare. 10. Zati. Ahariaren emea.

Soluzioak



asmatu eta irabazi > **bi lagunentzako bazkari bat**



Nor da?

- Donostiako semea
- Lapiko artean ederto moldatzen da
- Orain dela gutxi, hirugarren Michelin izarra eskuratu zuen.

> Aurrekoaren erantzuna: Gerry Adams
> Irabazlea: **Jone Etxezarreta* (Getxo)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:
UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

Usategi kafetegia



Usategi parkea z/g, **Algorta**
Telf: erreserbak: 94 460 64 13

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Jurikaldoi

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO



Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13



JOSE ANTONIO ZARRAGAK UTZITAKO ARGAZKIA DA

Bittor Egurrola

Txorierri futbol taldea, 1971

Txorierri, guztiok dakigunez, Bizkaiko eskualde bat da eta sei udalerrik osotzen dute bere Mankomunitatea. Erandio ofizialki ez dago Txorierriko mankomunitatean baina batzuek Erandio Goikoa eta Asua, biak Erandioko auzoak, sartzen dituzte eskualde horretan.

Erandioko Ategorri futbol zelaian, 1971ko urtarrilean ateratako argazkian, Txorierri taldea agertzen da. Horrela deitzen da Erandioko jubenilen futbol taldea. Eta hauxe izan zen, jubenilen mailan, Bizkaiko Kopa jokatu zuen taldearen aurkezpena. Eta ez bakarrik jokatu, irabazi ere bai. San Mameseko futbol zelaian, Sestaok eta Txorierri elkarren aurkako partidaren txapeldunak izan ziren, 2-1 irabaziz.

Bere kirol ibilbidean, 1956an lortu zuen garaipenik handiena; Montjuich-en (Bartzelonan) Murtziaren aurka galduz, Espainiako txapeldunorde geratu zen. ○

Zutunik: Jaime Pardavila (atezaina), Cheche Ansoleaga, Antonio Sainz "El Navarro", Enrique Redondo (atezaina), Fermin Artola, Javier Barcena, Miguel Angel Escobar, Iñaki Llorente, Jose M^a Carro, Javi San Martin, Alfredo Garate, Javi Bilbao, Jose Luis Bilbao "Balanegra" (entrenatzailea), Jose Antonio Zarraga (lehendakaria).

Makurtuta: Iñaki Ansoleaga, Jose Luis Macho (GB), Felix Greño, Pedro M^a Fernandez, Javi Arrieta, Javi Gonzalez, Bernardo Requena (GB), Pepe, Iñaki Mentxaka, Jose M^a Gonzalez, Jon Marin (GB), Desiderio Perez.

[aitormenak]

JANFRI TOPERA > Aktorea

“Errentetatik bizi nahi nuke”

Testua: **Maitane Nerekan**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Alferra eta mozkortia.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Javier Freisseren edozeinetan. Berarekin lan egin dut eta zuzendari itzela dela uste dut.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Rasputin, pentsamenduarekin hiltzen zuelako.

Ohitura txarren bat al daukazu?

Denak. Erretzea, edatea, gehiegi jatea... eduki ahal diren guztiak.

Orain zarena izango ez bazina, zertan gustatuko litzaizuke jardutea.

Alperra izango nintzateke, errentetatik bizi diren horietakoa.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Egiten ditudan bidaiak bakarrak Oñara, nire jaioterria; Hondarribira, nire bizilekua; eta handik Madrilera, nire lantokia, egiten ditudanak dira.

Zein da zure ametsetako bat?

Amezgaiztoak ditut soilik. Aspaldi ez dudala amets polit bat edukitzen.

Goiza ala gaua?

Gaua edateko eta goiza bizitzeko.

Ikusi duzun azken filma?

Un franco catorce pesetas. Nire lagun batek egin du eta istorioa ezagutzen nuen. Asko gustatu zait.


Eta irakurri duzun azken liburua?

Uste dut eskola garaitik ez dudala liburu bat ere irakurri. Gidoiak dira irakurtzen dudak gauza bakarra. Momentu honetan nire hurrengo lana izango den *Mortadelo y Filemon II* pelikularen gidoia irakurtzen ari naiz.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?

Puntualitate falta eta profesionaltasun eza. ○

LABURREAN— 1958ko abenduaren 24an Oñan (Burgos) jaio zen Janfri Topera, baina Irun (Gipuzkoa) inguruan bizi izan da txikitatik. Antzerkian eman zituen bere lehenengo pausuak, nahiz eta zineari esker egin den ezagun. *El oro de Moscu* edo *Rosa Rosae* pelikuletan bigarren mailako paperak egin ditu. *Al salir de clase*, *Aquí no hay quien viva* edo *Los ladrones van a la oficina* telesail ezagunetan ere parte hartu du. Javier Freisserrek zuzendutako *El milagro de P. Tinto* edo *Mortadelo y Filemon* filmetan paper garrantzitsuak izan ditu. Euskal Herrian, *Mi querido Klikowsky* telesailan Arrateren aita burugogorraren papera egiteagatik da ezagun. Maiatzaren 11n Leioako Auditoriumean izango dugu *Cincuentones* antzezlanarekin.



ETORRI KANTARI OSKORRI THE PUB IBILTARIA XI

MAIATZAK 13 DOMEKA. 12:00. ALDAPA AUDITORIOA



OSKORRI TALDEAK, THE PUB IBILTARIA PROIEKTUAREN
11. URTEBETETZEAN (HAMAIIKA), KONTZERTU BIZI ETA BEREZIA PRESTATU DU;
TALDEKO PARTAIDEEKIN BATERA, EDOZEIN MUSIKA TRESNA JO EDO TA KANTATU
EGITEN DUEN PUBLIKOA EKITALDIAREN PROTAGONISTA NAGUSIA IZANGO DA.
KONTZERTU HONETAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, ZATOZ MAIATZAREN 13AN
(DOMEKA) EGUERDIKO 12:00ETAN, ALDAPA AUDITORIOA. AURRETIK ENTSEATU
NAHI BADUZU, ABESTIEN LIBRETOA EUSKARA ZERBITZUAN ESKATU DEZAKEZU:
KULTUR LEIOA, 4. SOLAIRUA. 94 607 25 76